



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

UDALAREN OSOKO BILKURAREN AKTA

BERTARATUAK

alkate-udal burua

BEGOÑA BALERDI URDAMPILLETA

zinegotziak

OIER MINTEGI ZEBERIO

LOURDES SARASOLA ETXEBERRIA

JUAN JOSE GOGORZA BALERDI

FRANCISCA ZUBELDIA LULUAGA

JOSEFINA ALTUNA AZURMENDI

IDAZKARIA

ANA JESUS ZABALA GARMENDIA

Lizartzan, 2013ko uztailaren 29an, arratsaldeko 19:00etan, eta Udaleko alkate udalburua, Begoña Balerdi Urdampilleta izanik, Udaletxeko Bilkura Aretoan bildu dira alboan adierazitako zinegotziak.

Bilkuraren fede ematen du Ana Jesus Zabala Garmendia, udal-idazkari-kontu hartzaileak.

Bilkurari hasiera eman dio presidenteak, eta hauek izan dira jorratutako

GAIK

LEHENA. AURREKO BILKURAKO AKTA ONARTZEA.

Alkateak, aurreko saioaren aktari ezer esatekorik badagoen galdetu du, eta inork ezer esatekorik ez duenez, aho batez onartu da.

BIGARRENA. ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Udal honi subsidiarioki aplikagarri zaion apirilaren 2ko 7/85 Legearen 22.2 a) artikuluan adierazitako ahalmena gauzatzearen, eta Tokiko Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoari buruzko Araudia onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 42. artikuluan adierazitakoari jarraiki, Udalburuak Batzarrari jakinarazi dizkio ohiko azken bileraz geroztik hartutako erabakiak:

118/2013 Dekretua

121/2013 Dekretua

127/2013 Dekretua

141/2013 Dekretua

164/2013 Dekretua

189/2013 Dekretua

191/2013 Dekretua

209/2013 Dekretua

212/2013 Dekretua

216/2013 Dekretua

119/2013 Dekretua

122/2013 Dekretua

140/2013 Dekretua

161/2013 Dekretua

168/2013 Dekretua

190/2013 Dekretua

208/2013 Dekretua

210/2013 Dekretua

214/2013 Dekretua

219/2013 Dekretua



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

228/2013 Dekretua

230/2013 Dekretua

Jakinaren gainean gelditu da Batzarra.

3.- 2/2013 KREDITU ALDAKETA

“KREDITU GEHIAGARRIEN BIDEZ EGIN BEHARREKO KREDITU ALDAKETARAKO 2 zk.ko ESPEDIENTEA.

Udal honetako Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea irakurri da.

Idazkari-Kontu hartzaileak egindako txostenak dioenez, aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaio, eta zehazki Udal Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 foru arauaren 34. artikulua ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Era berean, Ogasun Batzordeak egindako aldeko txostena eta onespen proposamena irakurri dira.

Eztabaidatu ondoren botutara jarri eta bertaratuen aho batez, honako hau

ERABAKI DA

1.- Udal honen aurtengo ekitaldiko Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea onestea, proposamenaren eta ondoko laburpenaren arabera:

KAPITULUA	KONTZEPTUA	KREDITUAK		
		Egungoak	Aldaketak	Behin-betikoak
131.449.01.01	Peoia	-----	3.500,00	3.500,00
131.451.01.01	Begiraleak	-----	1.750,00	1.750,00
160.449.01.01	G.S. Peoia	-----	1.300,00	1.300,00
160.451.01.01	G.S. Begiraleak	-----	550,00	550,00
210.449.01.01	Bestelako Mantenimenduak	30.803,77	26.500,00	57.303,77
221.433.02.01	Kaleko Argi Indarra - Irurzubi	5.000,00	5.000,00	10.000,00
226.432.01.04	Arkitektoa	10.000,00	10.000,00	20.000,00
227.432.01.01	Proiektuak eta Lan Teknikoak	3.000,00	10.648,00	13.648,00
	Auditoria Luminikoa – 5.687,00 Herritarren Partaidetza – 4.961,00 Baldintza Pleguak – 3.000,00			
430.711.01.01	Menditako Batzordea	1.000,00	8.975,29	9.975,29
GUZTIRA		49.803,77	68.223,29	118.027,06



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

KREDITU GEHIGARRIAK FINANTZATZEKO PROPOSAMENA

KAPITULUA	KONTZEPTUA	KREDITUAK		
		Egungoak	Aldaketak	Behin-betikoak
420.000.00.99	F.A. Bestelako Transferentziak	-----	9.383,77	9.383,77
	F.A. Herritarren Partaidetza 2.788,00			
	F.A. Hiri Hondakinak 6.595,77			
	EVE. Auditoria Luminikoa		1.200,00	1.200,00
870.000.00.01	Diruzaintzako Remanentea	15.603,77	54.347,67	69.951,44
GUZTIRA		15.603,77	68.223,29	83.827,06

2.- Jendaurrean ikusgai jartzea, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin-betikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.

4.- BAKE EPAILEAREN IZENDAPENA

Botere Judizialeko Lege Organikoko 101 artikulua xedatzen duenaren arabera, Udalbatzarrak Bake Epalea eta bere ordezkoa hautatu behar ditu, ondoren Euskal Herriko Autonomi Elkarteko Zuzentza-Auzitegi Gorenak izendapenak egiteko.

Kontutan hartuaz, iragarkien bidez, jendaurrean egon dela, izena emateko epea zabalduaz eta epe horretan ez dela inor agertu.

Kontutan harturik, aurrez Bake Epale postua betetzen zuenak, hau da: HERMENEGILDO IRAZU GOGORZA prest agertu dela karguan jarraitzeko, proposatzen da:

Euskal Herriko Autonomi Elkarteko Zuzentza-Auzitegi Gorenari, Bake Epale posturako, HERMENEGILDO IRAZU GOGORZA Jauna izendatzeko proposamena luzatzea.

Eztabaidatu ondoren, proposamena, gehiengo quorum-arekin, aho batez onartu da.

5.- LIZARTZAKO UDALERRIKO KANPOKO ARGIZTAPEN-ZERBITZUAREN KUDEAKETA KONTRATATZEKO EXPEDIENTEA ETA ADMINISTRAZIO-KLAUSULA BEREZIEN BALDINTZA-ORRIEN ONARPENA

2013ko uztailaren 1ean, Alkatetzak, Lizartza Udalerriko Kanpoko Argiztapen-Zerbitzuaren Kontratatzeko beharra detektatu zuen.



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

Zerbitzuaren ezaugarriak kontutan hartuta, prozedura egokiena, hau da: Prozedura irekia, ekonomi eskaintza onuragarria eta adjudikatzeko hainbat irizpide.

2013ko uztailaren 3an, Kontu Hartzaitzak txostena luzatu zuen, indarrean dagoen aurrekontuko baliabideekin alderatuz, kontratazioak suposatzen zuen ehunekoari buruz.

2013ko uztailaren 3an, Idazkaritzak txostena luzatu zuen, aplikagarri den legedia, jarraitu beharreko prozedura eta kontratua onartu eta adjudikatzeko ahalmena duen organoari buruz.

2013ko uztailaren 5ean, Alkatetza Ebazpena bitartez, aipatutako kontratazioaren expedientea hastea onartu zue, proposatutako kontratazioaren beharra eta egokitasuna alderatuz.

2013ko uztailaren 12an, kontratuaren adjudikazioa bideratuko dituen, Baldintza Ekonomiko-Administratiboak, Teknikoak eta Laburpen Taula idatzi eta expedienteari batu zitzaion.

2013ko uztailaren 13an, Kontu hartzaileak, dagokion kredituen erretentzioa egin zuen eta 2013ko uztailaren 13an, expedientearen fiskalizazio txostena luzatu zuen.

Aurreko guztia aztertuta, expedientearen tramitazioak aplikagarri den legedia jarraitu du, eta urriaren 30eko 30/2007 legearen 94. art. eta bigarren xedapen gehigairrak diotenaren arabera, Udal Batzarrari dagokion bere onarpena.

Hori kontutan hartuta, onartu da:

- 1.- Lizartzako Udalerriko Kanpoko Argiztapen-Zerbitzua Kontratatzeko expedientea onartzea.
- 2.- 26.878,77 €-ko gastua baimentzea, 2013 urteko Aurrekontuaren gastutako, 1.0000.221.433.01.01.2013 partidaren kargura.
- 3.- Lizartzako Udalerriko Kanpoko Argiztapen-Zerbitzua Kontratatzeko Baldintza Ekonomiko-Administratiboak, Teknikoak eta Laburpen Taula onartzea.
- 4.- Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Kontratatzailearen Profilan argitaratzea, hogeiei egun naturaleko epean, interesdunek, dagozkien eskeintzak aurkez ditzaten.



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

**LIZARTZAKO UDALERRIKO KANPOKO ARGIZTAPEN-ZERBITZUAREN
KUDEAKETA KONTRATATZEKO ADMINISTRAZIO-KLAUSULA BEREZIEN
BALDINTZA-ORRIA**

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. AURREKARIAK

- 1.1 Azaroaren 14ko 1890/2008 Errege Dekretuaren bidez, kanpoko argiztapen-instalazioen energia-eraginkortasunari buruzko erregelamendua onartu zen, argiztapen-instalazioen energia-eraginkortasunaren arazoari aurre egiteko lege-esparru berri, komenigarri eta beharrezko gisa.
- 1.2 Erregelamendu horrek Lizartzako Udalerriko kanpoaldeko egungo argiztapen-sisteman aplikatzeak izan ditzakeen energia-, argi- eta ekonomia-ondorioak direla eta, Udalak beharrezkotzat jo du sistema hori erregelamendu horretara egokitzeko programa bat prestatzea.
- 1.3 Horretarako, udalerriko kanpoaldeko herri-argiztapenaren energia-auditoria bat egin da, udalerriko kanpoaldeko herri-argiztapena aipatu erregelamendu horretara egokitzeko zer baldintza tekniko eta ekonomiko dauden jakiteko. Lizitzaile guztien eskura jarri da haren kopia.
- 1.4 Emaizak aukera eman du zehazteko nola ustiatzen diren argiztapen-instalazioak, nola funtzionatzen duten eta zer egoeratan dauden haien osagaiak eta zerbitzuak, bai eta jakiteko ere zer jarduera egin behar diren udalerriko herri-argiterian egiten den elektrizitate-kontsumoa murrizteko, kanpoko argiztapen-instalazioen energia-eraginkortasunari buruzko erregelamenduko aginduetan oinarrituta.
- 1.5 Udalerriko kanpoko argiztapen-instalazioak erreformatzeko eta energia-eraginkortasunari buruzko erregelamendura egokitzeko, lizitazio honetarako deialdia egiten da, Energia Zerbitzuen Enpresari begira. Honako hau da enpresa horren definizioa: erabiltzaile baten instalazioetan energia-zerbitzuak ematen dituen eta, hori egiteagatik, nolabaiteko arrisku ekonomiko bati aurre egiten dion pertsona fisikoa edo juridikoa, eta hori guztia, betiere, emandako zerbitzuen ordainketa energia-aurrezpenak lortzean oinarritzen bada, energia-eraginkortasuna hobetzearen ondorioz.
- 1.6 Udalerriko kanpoko argiztapen-zerbitzu publikoa kudeatzeko energia-zerbitzuen enpresa bat kontratatzeak aukera emango du auditoriak adierazitako konponbide



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

teknikoak azkarrago abiarazteko, inbertsioen finantza-gaitasunari eta jarduera berri horrek berekin dakartzan aurrezkien bidezko geroko amortizazioari esker.

2. KONTRATUAREN XEDEA

2.1 Baldintza-orri honetan aipatutako kontratuaren xedea da Lizartzako Udalerrian kanpoko argiztapen-zerbitzu publikoa kudeatzea, jarduera orokor eta integratu baten bidez, eta hurrengo paragrafoan zehazten diren kontratu-dokumentuen arabera (horiek, bestalde, kontratuaren zatia izango dira).

Zehazki, kontratuaren xedea den jarduera orokor eta integratuaren helburua da Udal kontratatzaileak energia-zerbitzuen enpresa bati lagatzea kanpoko argiztapen publikorako instalazioen kudeaketa, baldintza-orri honen zati integratua den Baldintza Espezifikoen Laburpen Taulako (Taulako, aurrerantzean) **1.1 paragrafoan** aipatzen diren zerbitzuak emateko.

2.2 Taula, administrazio-klausula berezien baldintza-orria, baldintza teknikoaren agiria, kontratuaren formalizazio-dokumentua eta esleipendunak aurkeztutako eskaintza kontratu-dokumentuak dira, eta, horrenbestez, azken horrek adostasun-froga moduan sinatu beharko ditu kontratua formalizatzen den ekitaldi berean.

Aipatu dokumentu horietan desadostasunik izanez gero, paragrafo honetan zerrendatuta agertzen diren hurrenkera kontuan hartuko da; horrenbestez, bakoitzak lehenetsuna du ordenan atzetik dituen dagokienez.

2.3 Taulan berriaz aurreikusten bada, eta kontratuaren lizitazio-iragarkian adierazi bada, lizitatzailerak Taulako **1.2 paragrafoan** adierazitako moduan eskaintzen dituzten aldaerak edo hobekuntzak kontuan hartu ahal izango ditu kontratazio-organoak.

3. Kontratuaren erregimen juridikoa

3.1 Baldintza-orri honi dagokion kontratua administrazio-kontratua da, 3/2011 Legegintzako Errege Dekretu, azaroaren 14ko, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratua onartzen duenak 19.1 artikuluan adierazitakoaren arabera.

3.2 Baldintza-orri honi dagokion kontratuaren prestaketan, esleipenean, ondorioetan eta iraungipenean honako hauek kontuan hartuko dira: Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratua (artikulu hauek salbuetsita: 212.a -2. idatz-



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

zatitik 7. idatz-zatira, biak barne-, 213.a, 220.a eta 222.a); 817/2009 Errege Dekretu, maiatzaren 8ko, 30/2007 Lege, urriaren 30eko, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa zati batean garatzen duena (817/2009 Errege Dekretua aurrerantzean); eta 1098/2001 Errege Dekretu, urriaren 12ko, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorra onartzen duena; izan ere, indarrean daude Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren aurkako ez den guztian. Aurrekoaren osagarri, baldintza-orri hau, baldintza teknikoen agiria eta Taula ere kontuan hartuko dira.

3.3 Era berean, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 276. artikuluan xedatutakoaren arabera, bai kontratu honen ondorioetan bai kontratua betetzean eta iraungitzean, aplikagarria den autonomia- eta udal-arauegia herri-argiztapenez dauden xedapen bereziei jarraituko zaie.

3.4 Gainera, arau hauek ere dira aplikagarriak kontratu honetan:

- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituena
- 781/1986 Legegintzako Errege Dekretua, apirilaren 18koa, Toki Araubidean indarrean dauden Lege Xedapenen Testu Bateratua onartzen duena
- Dekretua, 1955eko ekainaren 17koa, Toki Korporazioetako Zerbitzuei buruzko Erregelamendua onartzen duena, indarrean dauden artikuluetan.
- Kanpoko argiztapen-instalazioen energia-eraginkortasunari buruzko legeak; gau-ingurunea babesteari dagokionez, argiztapen horren ingurumen-antolaketari buruzko legeak; eta aplikagarriak izan daitezkeen beste arau sektorial batzuk.
- Horien osagarri izango dira, baita ere, administrazio-zuzenbideko gainerako arauak eta, horrelakorik ez badago, zuzenbide pribatukoak.

4. KONTRATUAREN ZER-NOLAKOA

Kontratu hau zerbitzu publikoen kudeaketa-kontratu gisa sailkatzen da, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 8. artikuluan haiez ematen den definizioaren arabera. Kasu honetan emakida da zerbitzua kontratatzeke erabilitako modalitatea, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 277a) artikuluan jasotakoaren arabera.

5. Kontratazio-organoa

Baldintza-orri honetan aipatzen den kontratuan, Taulako **2. paragrafoan** identifikatutakoa izango da kontratazio-organoa.



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

6. Kontratatzailearen profila

Kontratazio-organoko kontratatzaile-profila Udalaren Kontratazio Atarian dago, www.lizartza.com webgunean.

7. OINARRIZKO LIZITAZIO-AURREKONTUA ETA KONTRATUAREN PREZIOA

7.1 Oinarrizko lizitazio-aurrekontuaren zenbatekoa Taulako **3.1 paragrafoan** dago adierazita, eta hartan aurreikusitako urteko kuotetan banatuta dago. Kalkulua egiteko, kontratu-dokumentuen eta indarreko legediaren arabera emakidadunaren kontura diren gastuak eta balorazio-faktore guztiak kontuan hartzen dira, hala nola mota guztietako zergak, balio erantsiaren gaineko zerga barne, zeina kontusail independente gisa agertzen baita.

7.2 Kontratuaren prezioa haren esleipenetik ondorioztatutakoa izango da, inoiz da izango oinarrizko lizitazio-aurrekontua baino handiagoa, eta, kontusail independente gisa, balio erantsiaren gaineko zerga jasoko du (BEZ).

Kontratuaren prezioaren barrukotzat hartuko dira aplikagarriak diren edozein motatako gainerako zergak, hala nola baldintza-orri honetan eta baldintza teknikoen agirian jasotako betebeharrak haietan adierazi bezala betetzearen ondorioz esleipendunarentzat sortutako gastu guztiak.

7.3 Kontratuaren prezioa berrikusi ahal izango da, Taulako **3.2 paragrafoan** hala adieraziz gero, eta, horretarako, paragrafo horretan jasotako formulak edo indize ofizialak erabiliko dira.

7.4 Kontratuaren balio zenbatetsia (kontratuaren zenbateko osoa, egon litekeen edozein aukera-, aldaketa- eta luzapen-mota barne, eta BEZa jaso gabe), Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen Testu Bateratuaren 88. artikuluko aurreikuspenen arabera, ez badator bat oinarrizko lizitazio-aurrekontuarekin, hori Taulako **3.3 paragrafoan** jasoko da, behar bezala arrazoituta.

7.5 Taulako **3.4 paragrafoan**, eskaintza bat, baldintza-orri honetan aipatzen den kontratuaren xedeari dagokionez, zer kasutan jotzen den anormalki txikitat adieraziko da.

8. UDAL-KREDITUA



LIZARTZAKO

UDALA

GIPUZKOA

Kontratu honen ondoriozko betebeharrak ekonomikoak, uneko urteari dagokionez, Taulako **4. paragrafoan** adierazitako aurrekontu-sailaren kontura beteko dira, hala nola hurrengo ekitaldietako aurrekontuetan berariaz esleitutako aurrekontu-sailaren kontura, kontratua gauzatzeko epearen barruan.

9. KONTRATUAREN IRAUPENA

9.1 Taulako **5.1 paragrafoan** adierazitakoa izango da kontratuaren iraupen-eperik luzeena. Epe hori kontratua formalizatu eta hurrengo egunean hasiko da kontatzen.

9.2 Era berean, prestazio jakin batzuk edo haien zati batzuk betetzeko epe partzialak Taulako **5.2 paragrafoan** daude adierazita.

9.3 Hala badagokio, kontratua luzatu ahal izango da, Taulako **5.3 paragrafoan** hala adieraziz gero, eta luzapena derrigorrezkoa izango da enpresaburuarentzat, paragrafo horretan kontrakoa aurreikusi ezean. Luzapena inoiz ere ezingo da gertatu aldean isilbidezko adostasunaren ondorioz.

10. KONTRATUAREN ALDAKETA

10.1 Kontratua formalizatu ondoren, kontratazio-organoak zerbitzu kontratatuaren ezaugarriak erabaki ahal izango ditu herri-intereseko arrazoiengatik eta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuko I. liburuko V. tituluaren aurreikusitakoak gertatuz gero.

10.2 Kontratuan edozein aldaketa egin behar denean, nahitaez formalizatu beharko da aldaketa horiek egin behar direla kontratistari jakinarazi eta hurrengo hogeita hamar eguneko epean, edo, bestela, Udalak haiek egiteko baimena eman ondoko epe berean.

10.3 Kontratuko aldaketak derrigorrezkoak izango dira esleipendunarentzat, eta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 156. artikuluan xedatutakoaren arabera formalizatu beharko dira.

10.4 Aldaketari aplikatzeko araubideari dagokionez, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 106., 107., 108. eta 282. artikuluetan xedatutakoari jarraituko zaio. Inola ere alde batera utzi gabe Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 211. artikuluan xedatutakoa eta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 108.2 artikuluan Sektore Publikoko



LIZARTZAKO

UDALA

GIPUZKOA

Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 107. artikuluan kontratuak aldatzeko aurreikusitako kasuei buruz jasotakoa, Udalak, kasuan kasuko kontratu-aldaketa egin baino lehen, kontratistari entzun beharko dio, eta horrek proposatutako kontratu-aldaketaz duen iritzia emateko hamabost egun izango ditu, Udalak horretarako eskaera egiten dionetik.

10.5 Taulako **6. paragrafoan**, aurreikusitako aldaketen baldintzak, helmena eta mugak zehazten dira.

10.6 Taulako **6. paragrafoan** aurreikusi gabeko aldaketak Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 107. artikuluan aurreikusitako gorabeheretakoren bat gertatu dela behar bezala arrazoituz gero egin ahal izango dira. Aldaketa horiek ezin izango dituzte lizitazioko eta esleipeneko funtsezko baldintzak aldatu; aldaketak egiteko beharra eragin duen kausa objektiboari erantzuteko ezinbestekoak diren aldaketak baino ezin izango dira egin.

10.7 Betiere, kontratuaren araubide ekonomikoak emakidaren ekonomia- eta finantza-oreka hurrengo klausulan adierazi bezala mantentzen duela ziurtatuko da.

11. EMAKIDAREN EKONOMIA- ETA FINANTZA-OREKARI EUSTEA

11.1 Emakidak bere ekonomia- eta finantza-orekari eutsi beharko dio esleipenerako pentsatutako moduan, interes orokorra eta emakidadunaren interesa kontuan hartuta.

11.2 Kontratazio-organoak emakidaren ekonomia- eta finantza-oreka berrezarri beharko du, dagokion aldearen mesedetan, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 282. artikuluan adierazitako kasuetan, bai eta, bereziki, kasu hauetan ere:

- a) Udalak, interes publikoko arrazoiengatik eta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuko I. liburuko V. tituluaren adierazitakoaren arabera, kontratatutako zerbitzuaren ezaugarriak aldatzen baditu.
- b) Administrazioaren jardunak kontratuaren ekonomiaren oreka funtsean haustea eragiten badu.
- c) Ezinbestekak eraginda kontratuaren ekonomiaren oreka funtsean hausten bada. Ondorio horietarako, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 231. artikuluan jasotako egoerak joko dira ezinbestetzat.
- d) Kasuan kasuko administrazio- edo gobernu-agintariak lizitazioaren deialdia egiteko unean indarrean ez dagoen edozein arau, lege edo egintza onartzen



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

badu, zerkusirik ez badu aldean arteko harremanekin, eta zuzenean hausten badu emakida-kontratuaren ekonomia.

- e) Ezin aurreikusizko arrisku bat gertatu eta emakida-kontratuaren ekonomia funtsean haustea zuzenean eragiten badu.
- f) Kontratuaren xede diren zerbitzuei haiek nabarmen hobetzen dituzten aurrerapen teknikoak gehitu bazaizkie, baldin eta aurrerapenak kontratua esleitu ondoren zabaldu badira merkatuan, teknikaren egoerarekin bat.

11.3 Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 282. artikulua arabera, kasuan-kasuan neurri egokiak hartuta lehengoratuko da emakidaren oreka ekonomikoa. Neurri horiek izan daitezke kontratu-epea laburtzea edo, oro har, kontratuko klausula ekonomikoetako edozein aldatzea. Eta, b) eta c) paragrafoen kasuan, beste aukera bat ere badago: kontratu-epea luzatzea. Gehienez ere hasierako iraupenaren %10 izango da luzatze hori, eta, betiere, legez ezarritako gehieneko iraupen-epeak urratu gabe.

II. LIZITAZIOA

12. KONTRATATZEKO GAITASUNA

12.1 Jarduteko gaitasun osoa duten pertsona natural edo juridikoak, espainiarrak edo atzerriarrak, izan ahal izango dira kontratu honen esleipendun, banaka edo enpresaburuen aldi baterako elkarte bidez, baldin eta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 60. artikuluan aipatutako debekuetako ezin ere ez badute sektore publikoarekin kontratatzeke, eta kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionala dutela egiaztatzen badute. Taulako **7.1 paragrafoan** adierazitako bitartekoen bidez egiaztatuko da irizpide horiek betetzen direla.

12.2 Enpresaburuek, halaber, Taulako **7.2 paragrafoan** zehaztutako enpresa- edo lanbide-gaikuntza izan beharko dute.

Gainera, pertsona juridikoak direnean, baldintza-orri honen xede den kontratuaren prestazioek haien estatutuen edo sorrerako arauen arabera berezko dituzten helburuen, xedearen edo jarduera-esparruaren barruan egon beharko dute.

12.3 Erkidegoz kanpoko enpresa atzeritarrek, gainera, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 55. artikuluan jasotakoak bete beharko dituzte.



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

13. ESLEIPEN-PROZEDURA

Kontratua prozedura ireki bidez eta Taulako **8. paragrafoan** aipatutako kontratazio-motaren arabera esleituko da.

14. PROPOSAMENAK AURKEZTEA

- 14.1 Proposamenak lizitazio-iragarkian adierazitako moduan, epean eta lekuan aurkeztuko dira, eta eskatutako dokumentazioa jasoko dute; aplikagarria izango da Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorraren 80. artikuluan adierazitakoa.
- 14.2 Proposamenak posta ziurtatu bidez igortzen badira, gutun-azal batean sartuko dira, eta gutun-azalean berriaz jarriko da kontratazio-espeditatearen izena. Kasu honetan, lizitatzailleak, gainera, proposamena igorri eta egun berean jakinaraziko du fax edo telegrama bidez bidalketa hori egin duela; fax edo telegrama horretan, kontratuaren izen osoa eta lizitatzaillearen izena jarriko dira, eta lizitazio-iragarkian aipatutako lekura bidaliko da. Bi baldintza horiek bete ezean, proposamena ez da onartuko, lizitazio-iragarkian epea amaitzeko adierazitako egun eta ordu zehatza baino geroago jasotzen bada. Gainera, data eta ordu horretatik hamar (10) egun natural igarotzen badira proposamena jaso gabe, hura inoiz ere ez da onartuko.
- 14.3 Kontratazio-organoak proposamena bidalketa-eguna eta -ordua adierazita igorri zaiolako jakinarazpena jaso duela egiaztatuko du, eta egiaztatze hori jasotako eskaintzen egiaztagiriekin batera gordeko du.
- 14.4 Udalaren Kontratazio Publikoaren Atarian kontratu honen lizitazio-deialdiari buruzko informazioa eskainiko da.
- 14.5 Lizitatzailleek informazio gehiago eskatu ahal izango dute baldintza-orriei eta dokumentazio osagarriari buruz, lizitazio-iragarkian eskaintzak jasotzeko zehaztutako muga-eguna baino 12 egun lehenago, gutxienez. Informazio hori Udalaren kontratatzailearen profilean argitaratuko da, proposamenak aurkezteko epea amaitu baino sei egun lehenago.
- 14.6 Proposamenak aurkezteak berekin dakar enpresaburuak baldintzarik gabe onartzea baldintza-orri honetako klausulak, Taula eta baldintza teknikoaren agiria, inolako salbuespenik gabe.



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

14.7 Lizitazioan ezin izango dute parte hartu kontratazio honetarako zehaztasun teknikoak egiten jardun duten enpresek, baldin eta parte-hartze horrek lehia askea muga badezake edo pribilegiozko tratua eragin badezake gainerako enpresa lizitatzailleekiko.

14.8 Enpresaburu bakoitzak ezin izango du proposamen bat baino gehiago aurkeztu. Halaber, ezin izango du beste enpresaburu batzuekin aldi baterako elkarte batean antolatuta proposamenik sinatu, bakarka edo aldi baterako beste elkarte bateko kide gisa sinatu badu. Debeku horiek urratuz gero, ez da onartuko berak sinatutako eskaintzarik.

15. LIZITAZIO ELEKTRONIKOA

15.1 Bitarteko eta euskarri elektronikoak, informatikoak eta telematikoak erabili ahal izango dira proposamenak eta dokumentuak aurkezteko, hala nola kontratazio-organoaren eta interesdunen arteko jakinarazpenetan eta komunikazioetan, Taulako **10. paragrafoan** hala adieraziz gero.

15.2 Paragrafo berean adierazten da zer atari informatikotan dauden eskaintza bitarteko elektronikoak erabiliz egiteko programak eta beharrezko informazioa.

16. PROPOSAMENEN FORMA ETA EDUKIA

Lizitazio honetan parte hartzeko, lizitatzailleek hiru (3) gutun-azal aurkeztu beharko dituzte itxita (1, 2 eta 3), barruan aurrerago aipatuko diren agiriak dituztela, eta haietako bakoitzaren kanpoaldean honako hauek zehaztu beharko dituzte ondo irakurtzeko moduan: zer kontratu egiteko lehiatzen diren, zein diren lizitatzaillearen izen-abizenak edo enpresaren merkatu-izena, zein den haien IFZ edo IFK, eta zein proposamena sinatzen duenaren izen-abizenak, hala nola zer dela eta sinatzen duen proposamena. Lizitatzailleak edo hura ordezkatzeko duen pertsonak nahitaez sinatuta egon behar dute gutun-azalek, eta barruan dauzkaten dokumentuen zerrenda zenbakiduna jarriko da.

Horri dagokionez, lizitatzailleek, hala egokituz gero, proposamenean jasotako informazio jakin bati buruzko konfidentzialtasun-adierazpena aurkeztu ahal izango dute hartan, baldintza-orri honetako **I. eranskinean** horretarako paratutako ereduaren arabera.

A) 1. GUTUN-AZALA:"ADMINISTRAZIO-DOKUMENTAZIOA"; nahitaez, dokumentu hauek jasoko ditu:



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

1.- Jarduteko ahalmena

1.1.- Enpresa pertsona juridikoa bada, eraketa-eskritura edo aldaketakoa, hala egokituz gero. Eskritura horrek merkataritza-erregistroan inskribatuta egon beharko du, baldin eta hari aplikagarri zaion merkataritza-legediak hala eskatzen badu. Aplikagarria ez bazaio, eraketa-eskritura edo -agiria, estatutuak edo sorrerako ekintza (hala egokituz gero, kasuan kasuko erregistro ofizialean inskribatuta egongo dira), non bere jarduera erregulatzen duten arauak agertuko baitira, hala nola identifikazio fiskaleko kodea (IFK); horren guztiaren originala aurkeztu beharko da, edo indarreko legediaren arabera benetakoa den kopia, edo fotokopia konpultsatua (horretarako gaitasuna duen funtzionario batek egina). Lizitatzailleak, proposamena aurkeztean, zehazki zer erregimen juridiko zuen jaso beharko dute dokumentu horiek.

1.2.- Enpresaburua pertsona partikularra bada, nortasun agiri nazionalaren edo, bestela, erregelamenduz haren ordezkoa den agiriaren kopia, benetakoa izanez gero indarreko legediaren arabera, edo fotokopia konpultsatua, horretarako berariaz gaitutako funtzionario batek egina.

1.3.- Espainiakoak ez diren Europar Batasuneko enpresek Udalarekin kontratatzeko gaitasuna izango dute, baldin eta enpresak ezarrita dauden estatuko legeen arabera dena delako prestazioa gauzatzeko gaikuntza badute. Estatu batek bere lurraldean ezarrita dauden enpresa horiei baimen bereziren bat edukitzeko edo erakunde jakin batekoak izateko eskatzen badie bertan dena delako zerbitzua emateko, enpresek egiaztatu egin beharko dute betetzen dutela baldintza hori.

Zehazki, Espainiakoak ez diren Europar Batasuneko enpresek edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu zuten estatuetakoe

1.4.- Aurreko paragrafoan aipatuta ez dauden atzerriko enpresak badira, baldintza-orri honetako **II. eranskin**eko 2. paragrafoan aipatutako dokumentazioa aurkeztu beharko dute.

1.5.- Kontratua egiteko beharrezko enpresa- edo lanbide-gaikuntza egiaztatzen duen dokumentazioa, hala egokituz gero, Taulako **7.2 paragrafoan** eskatutakoaren arabera.

1.6.- Posta elektronikoaren helbide bat, jakinarazpenak egiteko, hala egokituz gero.

1.7.- Atzerriko enpresek dokumentazioa gaztelaniara ofizialki itzulita aurkeztuko dute.



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

2.- Ahalordeak askiestea

Beste baten izenean agertzen direnek edo proposamenak sinatzen dituztenek, edo pertsona juridiko bat ordezkatzeko dutenek, horretarako ahalorde askietsia ere aurkeztu beharko dute: originala edo kopia konpultsatua. Era berean, ahalordea edo ordezkaritza noren alde eman, pertsona horren NANaren fotokopia konpultsatua aurkeztu beharko dute. Ordezkaritza egiaztatzen duen dokumentuak ahalmenen eskuordetze iraunkorra jasotzen badu, Merkataritza Erregistroan inskribatuta egon beharko du.

3.- Erantzukizunpeko adierazpenak eta konpromisoak

Erantzukizunpeko adierazpena, baldintza-orri honetako **III. eranskineko** ereduaren arabera, non esaten baita enpresaburuak, pertsona fisikoa bada, edo enpresak, haren administratzaileek eta ordezkariak, pertsona juridikoen kasuan, hala nola proposamenaren sinatzaileak ez dutela Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 60. artikuluan kontratatzeke aipatutako debekuetako bat bera ere, eta ez dutela artikulua berean aurreikusitako bateraezintasunik. Adierazpen horretan berriaz azaldutako da lizitzailea egunean dagoela indarreko xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzeaz den bezainbatean, eta ez duela zorrik Udalarekin ordainketarako aldi betearazlean, haiek bermatuta egon ezean.

4.- Kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa edo profesionala

Taulako **7.1 paragrafoan** zehaztu egingo da lizitzaileek zer-nola eta zer bitartekorekin egiaztatu beharko duten beren kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa edo profesionala.

5.- Bitartekoak atxikitzea

Taulako **9. paragrafoan** hala adierazten bada, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 64. artikulua arabera, kontratazio-organoak lizitzaileei eskatu ahal izango die ez bakarrik beren kaudimena egiaztatzeke, bai eta hitzemandako ere behar adina bitarteko pertsonal edo material erabiliko edo atxikiko dituztela kontratua betearaztearen, edo zehatz adierazteko zein diren prestazioa gauzatzeko ardura duten langileen izenak eta lanbide-kualifikazioa.



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

Kontratazio-organoak eskakizun horiek egiten dituen kasuetan, lizitatuzaileek konpromiso bat aurkeztu beharko dute, orri honetako **IV. eranskineko** eredia kontuan hartuta.

6.- Enpresaburuen aldi baterako elkarteak

Aldi baterako elkarteak eraginkorra izan dadin esleitu aurreko fasean, hartako kide diren enpresaburu guzti-guztiek klausula honetan eskatutako dokumentuak aurkeztu beharko dituzte, bai eta konpromiso solidarioa adierazteko idazki bat ere, honako hauek jasoko dituenak: kideen izenak eta inguruabarrak; haietako bakoitzak duen parte-hartzea; aldi baterako elkarteak formalki eratzeko konpromisoa, esleipena egokituz gero, eta elkartearen ordezkari edo ahalduen bakar bat izendatzeko ahalorde askirekin, kontratutik ondorioztatzen diren eskubideak balia eta betebeharrak bete ditzan. Dokumentu horrek elkartekide diren enpresen ordezkariak sinatuta egon beharko du.

Aldi baterako elkartearen kaudimen ekonomiko eta finantzario nahiz tekniko edo profesionala eta haren ondorioak zehazteari dagokionez, elkartekide bakoitzarentzat egiaztatutako ezaugarriak metatuko dira.

Kontratua enpresaburuz osatutako aldi baterako elkarte bati esleitzen bazaio, elkarteak haren eraketa egiaztatuko du eskritura publiko bidez, eta elkarte horri egokitutako identifikazio fiskaleko kodea ere egiaztatuko da kontratua formalizatu baino lehen. Elkarteak eta kontratuak iraupen bera izango dute, kontratua iraungi arte.

7.- Atzerriko enpresen jurisdikzioa

Atzerriko enpresek Espainiako epaitegien eta auzitegien jurisdikzioari men egingo diotelako adierazpena aurkeztu behar dute –kontratutik edozein gorabehera sortzen bada ere zuzenean edo zeharka–, eta uko egingo diote legokiekeen atzerriko jurisdikzio-foruari.

8.- Talde bereko enpresak

Talde bereko enpresek halakoak direlako adierazpena aurkeztu beharko dute, eta halakotzat hartzen dira Merkataritza Kodearen 42.1 artikuluko kasuetakoren batean egon eta zeinek bere proposamena aurkezten dutenak esleipenagatik zein bere aldetik lehiatzeko.



LIZARTZAKO

UDALA

GIPUZKOA

Era berean, Merkataritza Kodearen 42.1 artikuluan aipatutako ordezkoko kasuetakoren batean lehiatzen diren sozietateek bazkide dituztenei buruzko adierazpen esplizitua aurkeztu beharko dute, proposamen desberdinak aurkeztu arren. Adierazpen horiek eskatzeko arrazoia da Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 145.4 artikuluan eta Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorren 86. artikuluan aurreikusitako neurritz kanpoko edo ausarkeriazko eskaintzen araubidea aplikatu ahal izatea, hala egokituz gero.

9.- Esleipeneko lehentasunari buruzko dokumentazioa

Esleipenean lehentasuna izateko, baldintza-orri honetako 20. klausulan aurreikusitakoaren arabera, honako dokumentazio hau aurkeztu ahal izango da gutunazal honetan:

- Ezgaitasuna duten langileen lan-kontratuak eta Gizarte Segurantzaren kotizatzeari lotutako dokumentuak, edo, lege aurreikusitako ordezkoko neurriak betetzearen alde egin izanez gero, salbuespen-egoeraren adierazpenaren kopia bat eta horretarako aplikatutako neurri zehatzak jasotzen dituen lizitatzaillearen adierazpen bat.
- Lizitatzaillea 44/2007 Lege, abenduaren 13ko, laneratze-enpresen araubidea erregulatzen duen araututako laneratze-enpresa gisa sailkatuta dagoela egiaztatzen duen dokumentazioa, arau horretan halakotzat hartua izateko adierazitako baldintzak betetzen dituelako.

10.- Lizitatzailen erregistro ofiziala

Kantabriako Autonomia Erkidegoko lizitatzailen eta enpresa sailkatuen erregistro ofizialean edo Estatuko lizitatzailen eta enpresa sailkatuen erregistro ofizialean egindako inskripzioaren ziurtagiriak honako hauek egin behar izatekin salbuetsiko ditu indarrean dagoen ziurtagiria daukaten inskribatutako lizitatzailleak: jarduteko gaitasunari eta ahalorde askietsiari buruzko dokumentazioa kontratazio-deialdietan aurkeztea; Udalarekin kontratatze deiekin edo bateraezintasunik ez dutelako adierazpenak aurkeztea; egunean daudelako adierazpena aurkeztea, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzeari dagokionez; eta udal horrekin aldi betearazlean zorrik ez daukatelako adierazpena aurkeztea, hala nola, hala egokituz gero, ezgaitasuna duten langileak kontratatutako izateko konpromisoari buruzko adierazpena aurkeztea.

Enpresaburuak erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko du lizitazioan kasuan kasuko erregistroko datuen indarraldiari buruz, baldintza-orri honetako **V**.



LIZARTZAKO

UDALA

GIPUZKOA

eranskineko ereduaren arabera. Erregistroko datuak aldatu badira, berariaz aipatuko da hori aurreko adierazpen horretan, zeina gainerako dokumentu egokiei gehituko baitzaie.

11.- Bisita-ziurtagiria

Udalak zigilatutako ziurtagiri bat aurkeztu beharko dute lizitatzailleek, kontratuaren xede diren instalazioak bisitatu dituztela egiaztatzeko, baldintza teknikoen agirian adierazitako moduan. Horretarako, lizitatzaillea harremanetan jarriko da Taulako 24. paragrafoan aipatzen den pertsonarekin, paragrafo berean esaten den eguna baino lehen.

B) 2. GUTUN-AZALA “DOKUMENTAZIO TEKNIKOA”

Gutun-azal honetan Taulako **11. paragrafoan** eskatutako dokumentazio teknika jasoko da, Taulako **12. paragrafoan** zehaztutako kontratuaren esleipen-irizpide objektiboak aplikatzeko, baina bertan ezingo da egon prezioari buruzko inolako dokumenturik. Gutun-azalean prezioari buruzko dokumentazioa sartzeak eskaintza lizitazio honetatik kanpo gelditzea ekar dezake berekin.

Irizpide batzuk kuantifikatzeko balio-judizioa egin behar bada, eta beste irizpide batzuk automatikoki ebalua badaitezke formulak aplikatuz, beste bi gutun-azal sartuko dira gutun-azal honetan: (2-A eta 2-B):

- 2-A gutun-azalean balio-judizio baten bidez kuantifikatu beharreko esleipen-irizpideei buruzko dokumentazioa jasoko da (irizpideak Taulako **11. paragrafoan** daude adierazita), hala nola, oro har, lizitatzaillearen ustez jasotzea komeni da beste edozein.

2-A gutun-azal honetan, ez da jaso behar 2-B gutun-azalean sartutako dokumentuei buruzko daturik. Horrelako datuen bat jasotzen bada, eskaintza lizitazio-prozesutik kanpo gera daiteke.

- 2-B gutun-azalean, formulak aplikatuz automatikoki ebalua daitezkeen esleipen-irizpideei buruzko dokumentazioa jasoko da.

C) 3. GUTUN-AZALA: "PROPOSAMEN EKONOMIKOA”

Proposamen ekonomikoa baldintza-orri honetako **VI. eranskin**eko ereduaren arabera idatzita aurkeztuko da, eta ez da onartuko kontratazio-organoak eskaintza



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

aztertzeke funtsezkotzat jotzen dituen kontuez argi jabetzea eragozten duten hutsegiteak, akatsak edo urratuak dituen proposamenik. Proposamenen bat ez badator bat aztertu eta onartutako dokumentazioarekin, oinarritzko lizitazio-aurrekontutik gorakoa bada, funtsean aldatzen badu erabakitako eredia, ageriko hutsegitea badu proposamenaren zenbatekoan, edo lizitatzailleak onartzen badu bideraezina dela hutsegite baten edo funtsik ezaren ondorioz, baztertu egingo da; hala ere, ez da baztertzeke nahikoa arrazoi izango eredian hitz batzuk aldatzea edo kentzea, horrek ez badu haren zentzua aldatzen.

Proposamenean, partida berezi gisa adierazi beharko da ezarri beharreko balio erantsiaren gaineko zergaren zenbatekoa.

17. ESLEITZEKO IRIZPIDEAK

Kontratua esleitzeko oinarri gisa erabili beharreko irizpideak eta haiei dagokien haztapena Taulako **12. paragrafoan** daude adierazita.

18. AURKEZTUTAKO DOKUMENTAZIOAREN KALIFIKAZIOA, IRIZPIDEEN BALORAZIOA ETA PROPOSAMENAK IREKITZEA

Baldintza-orri honetan aipatzen den kontratua esleitzeko, kontratazio-organoak kontratazio-mahai bat eratuko du, eta mahaikideak izendatuko: presidentea, idazkaria eta, gutxienez, lau kide. Kontratazio-mahai horretako burua udalbatzako kide bat izango da, edo hartako funtzionario bat, eta bertan, kide moduan, idazkaria edo, hala egokituz gero, aholkularitza tekniko emateko eginkizuna esleituta daukan organoaren titularrak eta kontu-hartzailea egongo dira. Udalbatzako funtzionario bat izango da idazkaria.

Kontratazio-mahaia dokumentazioa kalifikatzeko eratu ondoren, aurkeztutako dokumentazioan konpon daitezkeen akatsak edo hutsegiteak daudela ikusten badu, interesdunei jakinaraziko die telefaxa, posta elektronikoa, Kontratatzailearen Profila edo beste edozein bitarteko erabiliz, aukera ematen badu ziurtatzeko interesdunak jakinarazpena jaso duela, noiz eta zer edukirekin jaso ere, eta bost egun naturaletik gorakoa izango ez den epe bat emango da, lizitatzailleek haiek zuzen edo konpon ditzaten, edo azalpenak edo dokumentu osagarriak aurkez ditzaten.

Mahaiak, dokumentazioa kalifikatu eta, hala badagokio, goian aipatutakoak egin ondoren, baldintza-orri honetan kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionalei dagokienez bildutako hautaketa-irizpideak zer enpresak betetzen dituzten



LIZARTZAKO

UDALA

GIPUZKOA

erabakiko du, eta berariaz adieraziko du zein onartu diren lizitaziorako, eta zein baztertu eta zergatik.

Administrazio-dokumentazioa ireki eta hurrengo zazpi eguneko epea amaitu baino lehen, jendaurrean irekiko dira, hala egokituz gero, balio-judizio baten arabera haztatu behar diren irizpideei dagokien dokumentazioa daukaten gutun-azalak (2-A gutun-azala), eta Udaleko teknikariz nahiz, eskatuz gero, auditoretza-enpresak, bai baitaki zer behar dauden Lizartzako argiteria publikoan, izendatutako langile kualifikatuz osatutako aditu-batzordeari emango zaizkio, haietako dokumentazioa azter dezan, egindako guztiaren berri idatziz jasoz.

Jendaurreko ekitaldian, eskaintzak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo hilaren barruan, mahaiak lizitatzaileri jakinaraziko die zein den administrazio-dokumentazioaren kalifikazioaren emaitza eta zein balio-judizio baten arabera haztatu behar diren esleipen-irizpideen aurretiazko balorazioa. Ondoren, hirugarren gutun-azala irekiko du ("eskaintza ekonomikoa"), eta onartutako enpresen eskaintzak irakurriko ditu; bai eta 2-B gutun-azala ere, formulak aplikatuz automatikoki ebalua daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioari dagokiona. Gero, hala egokituz gero, egindako txostenekin batera, aktarekin eta egokitzat jotzen duen proposamenarekin helaraziko dio kontratazio-organoari; proposamenean, baldintza-orri honetan aipatutako esleipen-irizpideen haztapena jasoko da beti.

Esleipen-proposamenek ez dute sortzen lizitatzailerearen aldeko eskubiderik, eta ez du horrelakorik bereganatuko, Udalari dagokionez, kontratua formalizatzen ez den bitartean. Hala ere, udal horrek ez badu kontratua esleitzen egindako proposamenaren arabera, erabakia arrazoitu egin beharko du.

III. ESLEIPENA ETA FORMALIZAZIOA

19. ESLEIPEN-PROZEDURA

Esleipen-proposamena kontratazio-organoari helarazi ondoren, azken horrek ekonomikoki onena den eskaintza aukeratuko du, Taulako **12. paragrafoan** adierazitako irizpideen arabera.

Kontratazio-organoak ekonomiaren aldetik onuragarriena den eskaintza aurkeztu duen lizitatzaileri eskatuko dio hurrengo dokumentazioa aurkezteko, errekerimendua jasotzen duen egunaren biharamunetik kontaktzen hasita hamar egun balioduneko epean, edo, zergen eta Gizarte Segurantzaren inguruko betebeharren kasuan,



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

baimena emateko kontratazio-organoari, zuzenean lor dezan haiek bete dituelako egiaztapena. Egiaztatze hori honela egingo da:

1. Zerga-betebeharrak:

- a) Lizitzailea jarduera ekonomikoei buruzko zergan alta emanda dagoela adierazten duen agiriaren originala edo kopia konpultsatua kontratuaren xedeari dagokion epigrafean, betiere zerga horri lotutako jarduerak eginez gero, proposamena aurkezten duen egunean daukan jarduerari dagokionez, aribideko ekitaldiaz den bezainbatean, edo azken ordainagiria, aipatu zergaren matrikulan baja hartu ez duelako erantzukizunpeko adierazpenaz osatuta.

Zerga horretatik salbuetsita dauden subjektu pasiboek salbuespen horren zergatia azaltzen duen erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko dute. Baldin eta Toki Ogasunak Arautzeko Legean (2/2004 Legegintzako Errege Dekretu, martxoaren 5ekoak onartutako testu bateratua), 82.1 artikuluko e) eta f) paragrafoetan aipatutako salbuespenetako batean badaude, eskuduna den Zerga Administrazioak salbuespena emateko berariaz hartutako ebazpena ere aurkeztu beharko dute.

Enpresen aldi baterako elkarteek eta taldeek zergan alta emanda daudela egiaztatu beharko dute, haietako kide diren enpresei dagokien zerga-ordainketa baztertu gabe.

- b) Eskuduna den zerga-administrazioak egindako ziurtapen positiboa, non oro har azalduko baita Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorren 13. artikuluko baldintzak betetzen direla.

Gainera, eskaintza ekonomikoki onena aurkeztu duen lizitzaileak ez du zorrik eduki behar ordaintzeko aldi betearazlean Udalarekin, haiek behar bezala bermatuta egon ezean. Zorrik ez dagoelako egiaztagiria Udalak berak emango du ofizioz.

2. Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak:

Gizarte Segurantzako Diruzaintzak egindako ziurtapen positiboa, non oro har azalduko baita Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorren 14. artikuluko baldintzak betetzen direla.

3. Behin betiko bermea:



LIZARTZAKO

UDALA

GIPUZKOA

Era berean, behin betiko bermea eratu dela egiaztatzen duen dokumentazioa hamar egun balioduneko epe horretan aurkeztuko da, hala nola lizitazio-iragarkien ordainketari dagozkion egiaztagirak eta, hala egokituz gero, hitzeman zuenaren arabera kontratua betearazteko erabili edo atxikiko zituen bitartekoak benetan dauzkala egiaztatzen duen dokumentazioa.

4. Auditoretzaren ordainketa:

Era berean, esleipenduna behartuta egongo da udalerriko kanpo-argiztapen publikoaren auditoretza energetikoaren ordainketa bere gain hartzera; hari dagokionez, Udalak berariaz adierazi du ados dagoela, Taulako **13. paragrafoko** zenbatekoa dela eta.

Horretarako, egindako lanengatik kobratzearekin ados dagoelako agiri bat eskatuko dio esleipendunak auditoretza-enpresari, eta agiri hori aipatu hamar egun balioduneko epean aurkeztu beharko zaio Udalari, energia-zerbitzuen enpresaren eta UDALAREN artean kontratua behin betiko sinatu baino lehen.

Nolanahi ere, auditoria ordaintzeak ez dakar berekin hura kontratuzkoa izatea, ez eta esleipenduna haren edukiarekin ados egotea ere.

Kontratua proposamenak ireki eta gehienez ere bi hileko epean esleituko da, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 112.2 b) artikuluan presakotzat jotako espedienteaz jasotakoa baztertu gabe. Epe hori hamabost egun baliodunetan handituko da, eskaintzetan ohiz kanpoko balioak edo neurritz gainekoak ikusiz gero.

Kontratazio-organoak esleipena erabaki ondoren, haren berri emango zaie enpresa lizitatzailer guztiei eta esleipendunari, eta, aldi berean, Udalaren kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

Kontratua esleitu eta, hala egokituz gero, helegiteak jartzeko epeak helegiterik jarri gabe igaro ondoren, proposamenekin batera doan dokumentazioa interesdunen eskura geratuko da. Haiek ez badute jasotzen beren dokumentazioa esleipena jakinarazi eta hurrengo hiru hilabeteen barruan, kontratazio-organoa ez da behartuta egongo haiek zaintzen jarraitzera.

20. ESLEIPENEN LEHENTASUNA



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

- 20.1 Kaudimen tekniko edo profesionala egiaztatzeko unean ezgaitasunen bat duten langileak langile guztien 100eko 2 baino gehiago badira enpresa batzuetan, edo ordezeko neurri egokiak hartu badituzte Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren laugarren xedapen gehigarrian eta 13/1982 Lege, apirilaren 7ko, ezgaitasunen bat duten pertsonak gizarteratzeari buruzkoan adierazitako moduan, lehentasuna izango dute esleipenean enpresa horiek, betiere haien proposamenak onenen maila berekoak badira kontratua esleitzeko erabakitako irizpide objektiboak aplikatu ondoren. Aurreko hori aplikatzeko, lizitzaileek egiaztatu beharko dute egoera horretan daudela, kasuan kasuko lan-kontratuen eta Gizarte Segurantzari egindako kotizazio-agirien bidez, edo, legez aurreikusitako ordezeko neurriak betetzearen alde egitea erabaki bada, egoera salbuespenezkoa delako adierazpenaren kopia bat eta berariaz aplikatutako neurriak jasotzen dituen lizitzailearen adierazpen bat erabiliz, baldintza-orri honetan jasotako moduan.
- 20.2 Enpresa lizitzaile bat baino gehiagoren artean berdinketa gertatzen bada proposamenik onuragarriena dagokionez, eta horiek guztiek ezgaitasunen bat duten langileak badituzte langile guztien artean 100eko 2 baino proportzio handiagoan, langile guztien artean ezgaitasunen bat duten langile finkoen portzentaje handiena duen lizitzaileak izango du lehentasuna kontratuaren esleipenean.
- 20.3 Halaber, kontratua esleitzean lehentasuna izango dute, ekonomiaren aldetik onuragarriena diren kontratuen baldintza beretan, 44/2007 Lege, abenduaren 13ko, laneratze-enpresen araubideari buruzkoan aurreikusitako laneratze-enpresek aurkeztutako proposamenek, baldin eta araudi horrek izaera hori izateko ezarritako baldintzak betetzen badituzte.
- 20.4 Aurreko hiru paragrafoetan xedatutakoari dagokionez, lehendabizi, klausula honetako lehen paragrafoan adierazitako irizpidea kontuan hartuko da esleipenean lehentasuna izateko. Ondoren, eta berdinketak jarraitzen badu, bigarren eta hirugarren paragrafoetako irizpideak kontuan hartuko dira ordena horretan.
- 21. Behin betiko bermea**
- 21.1 Kontratazio-organoak behin betiko berme bat eratzeko eskatuko dio eskaintza ekonomikoki onena aurkeztu duen lizitzaileari. Bermearen zenbatekoa Taulako **14. paragrafoan** adierazitakoa izango da. Hala egokituz gero, behin betiko bermearen araubidea hurrengo paragrafoetan deskribatutakoa da.



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

- 21.2 Kontratazio-organoak baldintza-orri honetako 19. klausulan aipatutako errekerimendua egin eta hurrengo hamar egun baliodunen barruan eratu beharko da berme hori.
- 21.3 Behin betiko bermea Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 95 artikulutik 102. artikulura bitartekotan eta, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuan adierazitakoaren aurkakoa ez den neurrian, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorraren 55., 56. eta 57. artikuluetan agindutakoari jarraikiz eratuko da, eta, aukeratutako formaren arabera, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorraren III., IV., V. eta VI. eranskinetako eruedetara egokituko dira (Udalaren Kontratatzailearen Profilean argitaratuta daude); gainera, Udal Diruzaintzan eta, hala egokituz gero, haren erakunde autonomiadunetan kontsignatu beharko da, edo beste herri-administrazio batzuetako pareko establezimenduetan, horretarako haiekin izenpetzen diren hitzarmenetan aurreikusitako moduan.
- 21.4 Baldin eta kontratua aldatu delako kontratuaren prezioa ere aldatu egiten bada, bermea egokitu egin beharko da, kontratua aldatzeko erabakia enpresaburuari jakinarazi zaion egunetik kontatzen hasi eta hamabost egun naturaleko epean, prezio berriaren eta bermearen artean dagokion proportzioa egon dadin. Zigorak eta kalte-ordainak gauzatzen diren egunetik kontatzen hasi eta epe berean, esleipendunak bermea berriz jarri beharko du, edo handitu dagokion zenbatekoan; bestela, kontratua suntsiarazteko kausetan eroriko da.
- 21.5 Behin betiko bermea itzultzeko eta ezerezteko araubidea baldintza-orri honetako 52. klausulan jasota dago.

22. ASEGURUAK

Esleipenduna behartuta egongo da Taulako **15. paragrafoan** aipatzen diren aseguru-polizak harpidetzera kontratazio-organoak aurrez onartutako konpainiekin, hartan adierazitako kontzeptuak, zenbatekoak, estaldurak, iraupena eta baldintzak kontuan hartuta.

23. KONTRATUA FORMALIZATZEA

- 23.1 Kontratua formalizazioaren bidez burutuko da, eta esleipendunak kontratazio-organoaren aurrean aldeztatik egiaztatu beharko du baldintza-orri honetako



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

19. klausulan aurreikusitako dokumentazioa aurkeztu duela eta, hala egokituz gero, Taulako **15. paragrafoan** aipatzen diren polizen harpidetza egin duela.

23.2 Bestalde, kontratazio-organoak adierazi behar du egunean dagoela kontratua formalizatzen den egunean konpainia hornitzaileekin dituen ordainketa-betebeharrei dagokienez, eta, horretarako, kontratua sinatu aurretik, egunean egote hori egiaztatzen duen dokumentazioa emango dio kontratistari. Dokumentazio hori konpainia hornitzaileak egindako dokumentu bat izan ahal izango da, edo udal-idazkariak egindako ziurtagiri bat, eta batak zein besteak kontratua formalizatzen den egunean konpainia hornitzaileekin zorrik ez dagoela egiaztatuko dute.

Paragrafo honetan deskribatutakoa gertatu ezean, esleipendunak ahalmena izango du espediente honetan atzera egiteko eta kontratua ez formalizatzeko.

23.3 Kontratuaren formalizazioa esleipenaren jakinarazpenean aurreikusitako epean egingo da, eta formalizazio horrek, oro har, jakinarazpen hori jaso eta hurrengo hamabost egun baliodunen barruan gertatu behar du.

23.4 Aurrekoa gorabehera, eta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 40. artikulua eta hurrengo arabera, kontratazio-alarrean errekurso berezia egin daitekeen kontratuetan, haien formalizazioa ezingo da egin esleipenaren jakinarazpena lizitatzaleei eta hautagaiei bidali eta hurrengo hamabost egun baliodunak igaro baino lehen. Epe hori kontratuaren esleipenaren aurka kontratazio-alarrean berekin formalizazioa etetea dakarren errekurso berezirik jarri gabe igaron ondoren, Udalak esleipendunari eskatuko dio kontratua formalizatzeko, esleipendunak errekerimendua jaso eta, hurrengo egunetik kontatzen hasita, bost egun baliodunetik gorakoa izango ez den epean.

23.5 Kontratua administrazio-agirian formalizatu beharko da, eta agiri hori lizitazioaren baldintzei lotuko zaie estu-estu. Nolanahi ere, kontratua eskritura publiko bihurtzeko eska dezake kontratistak, eta, orduan, bere kontura izango dira eskritura publikoa egiteak sortutako gastuak. Azken kasu horretan, kontratistak aipatu dokumentuaren kopia egiaztatu bat eta kopia soil bat eman beharko dizkio Udalari, formalizatu eta, gehienez ere, hilabeteko epean.

24. KONTRATAZIO-ALORREKO ERREKURTSO BEREZIA ETA GATAZKAK KONPONTZEKO ORDEZKO BITARTEKOAK



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

24.1 Hastapen-gastuen aurrekontua, BEZa kanpo, 500.000 eurotik gorakoa bada, eta kontratuaren iraunaldia 5 urtetik gorakoa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 40. artikuluan eta hurrengoetan nahiz Taulako **25. paragrafoan** jasotakoaren arabera, kontratazio-arloko errekurtsu berezia jarri ahal izango da honako egintza hauek direla eta:

- Lizitazio-iragarkiak, pleguak eta kontratazioa arautu behar duten baldintzak ezartzen dituzten kontratu-agiriak.
- Esleipen-prozeduran onartutako izapide-egintzak, baldin eta izapide horiek, zuzenean edo zeharka, esleipenari buruz erabakitzen badute, prozedurak aurrera jarraitzea eragozten badute, edo defentsa-gabezia edo eskubide eta interes bidezkoetan kalte konponezina sortzen badute. Prozedurak aurrera jarraitzea eragozten duten izapide-egintzatzat joko dira kontratazio-mahaiaren egintzak, lizitatzailleak baztertzea erabakitzen dutenean.
- Udalak onartutako esleipen-erabakiak.

24.2 Kontratazio-alorreko errekurtsu berezia Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren I. liburuko I. tituluko VI. kapituluan eta, bereziki, hartako 44. artikulutik 47.era bitartekoetan aurreikusitako arauen arabera hasi, izapidetu eta ebatzi beharko da.

24.3 Organo eskudunak kontratazio-alorreko errekurtsu berezia ebazteko emandako ebazpenaren aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsua baino ezingo da jarri, 29/1998 Lege, uztailaren 13ko, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duenean xedatutakoaren arabera (zehazki: 1. paragrafoko 10. artikulua, k) eta l) idatz-zatiak; eta 1. paragrafoko 11. artikulua, f) idatz-zatia).

24.4 Administrazioarekiko auzi-errekurtsu hori jartzeak ez du eragozten ebazpena zuzenean betearazlea izatea Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuan (49. artikuluan) adierazitako moduan.

IV. Kontratua gauzatzea

25. ARRISKU ETA MENTURAREN PRINTZIOA

Kontrartistak arriskua eta mentura bere gain hartuta beteko da kontratua, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 215. artikuluan eta 277. a) artikuluan xedatutakoaren arabera. Horrenbestez, kontratua baldintza-orri honetan,



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

baldintza teknikoen agirian eta gainerako kontratu-dokumentazioan adierazi bezala betetzeak eragindako arriskuak eta erantzukizunak bere gain hartuko ditu.

26. GAUZATZEARI BURUZKO XEDAPEN OROKORRAK

26.1 Lizartzako Udalerriko kaleetako argien zerbitzua eraginkortasun energetikoz kudeatzea da emakida honen xedea, eta hark betiere eusten dio udal-zerbitzu publikoa delako kalifikazioari.

26.2 Emakida kontratuko klausuletan, baldintza-orri honetan, Taulan, baldintza teknikoen agirian, gainerako kontratu-dokumentazioan eta aplikagarria den araudian xedatutakoaren arabera gauzatuko da.

26.3 Emakida kontratuaren iraupen-epean gauzatuko da (administrazio-klausula berezien baldintza-orriaren 9. klausulan dago adierazita).

26.4 Nolanahi ere, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 279.2 artikuluan xedatutakoari jarraituz, Udalak zerbitzuaren funtzionamendu ona ziurtatzeko beharrezko zaintza-aginpideei eutsiko die.

27. JARDUERA-PLANA

27.1 Hil bakoitzeko azken astean, kontratistak lan-plana aurkeztu beharko du, Udaleko teknikariak emandako argibideekin; bertan, hurrengo hilerako aurreikuspenak eta baldintza teknikoen agirian aurreikusitako edukia jasoko dira.

27.2 Edozein instalaziotan izandako esku-hartze bakoitzaren ondoren (ohikoa izan zein ez), gauzatutako zerbitzuen lan-gaztiguak egin beharko dira, eta Udalak izendatutako teknikariari eman, sina ditzan.

28. Giza baliabideak

Enpresa esleipendunak honako hauek egin beharko ditu:

- Kontratua sinatu eta gehienez ere hilabeteko epean Udalarari jakinaraztea instalazioetan esku hartuko duen taldeko kideak nor diren eta zer titulazio duten.
- Proiektuaren zuzendari teknikoa izatea; pertsona horrek teknikari tituluduna izan beharko du, gaitasuna eduki beharko du, eta kanpoko argiztapen-zerbitzuen



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

kudeaketari lotutako antzeko proiektuetan gutxienez 2 urteko esperientzia duela egiaztatu beharko du.

Kontratistak pertsona hori ordeztu behar du kontratua betetzeko aldiaren barruan, ordezkioak antzeko titulazioa edo handiagoa izan beharko du, eta haren izendapena Udalak onartu egin beharko du.

- Kontratistak ezingo du argudiatu langileak falta dituela zerbitzuaren kudeaketa eten edo atzeratu izana justifikatzeko, eta uneoro beharrezko kopurua izan beharko du hura gauzatzeko, kontratuaren kostuan eraginik izan gabe.
- Indarreko araudiak mantentze-lanak egiteko eskatzen duen kualifikazioa izatea langileek, bereziki lanbide-agiriei dagokienez, hala nola egiaztatutako esperientzia izatea, besteak beste, kontratu honen xede diren instalazioen mantentze- eta konponketa-lanetan.
- Baldintza teknikoaren agiriaren giza baliabideez xedatutakoa betetzea.

Nolanahi ere, kontratua indarrean den bitartean nahiz hura amaitzean, Udalak ez du harreman juridikorik, lan-harremanik edo bestelako harremanik izango enpresa esleipenduneko langileekin. Era berean, esleipenduna inoiz ere ez da izango kontratu honen xede den zerbitzuan gertatutako akatsen erantzulea, baldin eta administrazioko lan-itunpeko langileek edo funtzionarioek desegokiro jokatzearen ondorio badira, edo aipatu horiek kontratistak kontratu honen esparruko instalazioen eta ekipoen erabileraz adierazitako irizpideen edo jarraibideen aurka jardutearen ondorio badira.

29. BALIABIDE MATERIALAK

- 29.1 Ibilgailuak, makinak eta material guztia erabilera- eta kontserbazio-egoera ezin hobean egongo dira, eta Udaleko teknikariek baztertu ahal izango dituzte ez badaude egoera horretan; orduan, kontratistak eskaintzako ezaugarri bereko beste egoki batzuk lortu beharko ditu haien ordeztu erabiltzeko.
- 29.2 Ibilgailuak ondo baino hobeto margotuta eta garbituta egongo dira beti, eta gutxienezko itxura on eta txukuntasuna izan beharko dute.
- 29.3 Irizpide orokor moduan, ibilgailuen gainean muntatuta ez dauden eskailerak soilik erabiliko dira halakoak erabiltzea justifikatzerik ez dagoenean arrazoi operatiboengatik edo ekonomikoengatik, hala nola, adibidez, lanpara luminariak garbitzeagatik.



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

29.4 Udalak onetsi beharko ditu erabili beharreko materialak eta tresneria.

30. LANEKO PREBENTZIOA ETA SEGURTASUNA

30.1 Kontratataren eta ez beste inoren eskumena eta arriskua izango laneko istripuekin, hartako segurtasun-arauekin, aurreikuspen-arauekin, Gizarte Segurantzarekin eta kontratu honen xede diren lanei aplika dakizkiekeen xedapenekin zerikusia duen guztia.

30.2 Era berean, kontratataren betebeharra izango da Udalaren eskura jartzea aurreko eskakizunak justifikatzeko beharrezkoa den dokumentazio guztia.

30.3 Azkenik, argiztapen-sare publikoari dagokionez, esleipendunak honako hauek egin beharko ditu:

- Lan-eremuak seinaleztatzea, zirkulazio- eta argi-seinaleztapena barne. Oinezkoentzat arriskutsuak diren obren edo konponketen kasuan, behar diren segurtasun-neurri guztiak hartuko dira: barrerekin mugatzea, argi-seinaleak jartzea, zuloak edo hondeaketak estaltzea eta abar.
- Baldintza-orri honen eta baldintza teknikoen agiriaren arabera beharrezkoak diren konponketak eta mantentze-lanak egitea; haiek berregokitu ahal izango dira premia dagoenean edo zerbitzuaren beharren eta kontratazio-organoaren jarraibideen arabera.
- Berehala eta idatziz jakinaraztea kontratazio-organoari kalteak gertatu direla argiztapen-sare publikoaren edozein puntutan ekintza bandalikoengatik, obrengatik edo beste gorabehera batzuegatik, eta kalteei buruzko txosten zehatza eta ahalik eta informazio gehien ematen duena aurkeztea. Polizia-etxean edo epaitegietan salaketa jarriz gero, haren kopia emango zaio kontratazio-organoari, eta txostenari erantsiko zaio.
- Istripuaren jakinarazpena idaztea, eragileak sinatuta, eta beharrezko datu guztiak ematea, esleipendunaren ibilgailuek edo makinek eragin badituzte kalteak argiztapen-sare publikoaren elementuetan.

31. ZAINZTA ETA IKUSKAPENA



LIZARTZAKO

UDALA

GIPUZKOA

31.1 Udal-teknikariek ahalmen osoa izango dute beti enpresa esleipendunak, baldintza-orri honetan eta oinarri teknikoen pleguetan jasotakoa betetzearren, egin beharreko lanak ikuskatzeko.

31.2 Kontratistak aukera eman behar die Udaleko langileei ikuskatzeko edozein bisita egiteko.

32. Kontratistaren eskubideak

32.1 Kontratistak kontratuan zehazturik datozen diru-ordainak jasotzeko eskubidea du.

32.2 Kontratistak kontratazio-organoaren laguntza jasoko du, kontratua zehaztu bezala gauzatu ahal izateko.

32.3 Era berean, kontratua gauzatzeko behar diren herri-jabariko ondasun guztiak erabili ahal izango ditu.

32.4 Kontratistak Udalaren kalte-ordaina jaso beharko du zerbitzua herri-intereseko arrazoiengatik berreskuratzen edo ezabatzen bada, edo ezin ustiatuzkoa bada Administrazioak kontratuaren ondoren hartutako erabakien ondorioz.

32.5 Azkenik, kontratuari aplikatzekoa den arauditik, baldintza-orri honetatik, baldintza teknikoen agiritik eta gainerako kontratu-dokumentaziotik ondorioztatutako eskubide guztiak izango ditu kontratistak.

33. KONTRATISTAREN BETEBEHARRAK ETA ERANTZUKIZUNAK

33.1 Kontratista Taulan eta baldintza teknikoen agirian aipatutako prestazioak egitera behartuta dago, kontratu-dokumentuen arabera.

33.2 Kontratistak zerbitzua itundutako jarraitutasunaz eman behar du, eta partikularrei hura erabakitako baldintzetan erabiltzeko eskubidea bermatu behar die.

33.3 Kontratistak zerbitzua ondo dagoela zaindu behar du, eta jarraibide egokiak eman ditzake, zaintza-aginpideen kaltetan izan gabe.

33.4 Zerbitzua eman behar horretan inori kalterik eraginez gero, kontratistak kalte-ordaina eman behar du, non eta kaltea ez den gertatu Udalari egotzi ahal zaizkion kausengatik.



LIZARTZAKO

UDALA

GIPUZKOA

- 33.5 Kontratistak kontratua gauzatzeko epea bete behar du, bai eta, hala egokituz gero, Taulan zehaztutako epe partzialak ere.
- 33.6 Kontratista behartuta dago Gizarte Segurantzako lan-esparruan eta Laneko Segurtasun eta Higienekoan indarrean dauden xedapenak betetzera, eta hark betebehar horiek zein kontratua gauzatu bitartean onartzen direnak betetzen ez baditu, ez-betetze horrek ez dio ekarriko inolako erantzukizunik Udalari.
- 33.7 Kontratuaren xedea betetzeko (are, hala egokituz gero, ondasunak inportatzeko ere) beharrezkoak diren lizentzia edo baimen administratibo guztiak eskuratzea kontratistaren kontura izango da beti, eta bere izenean eskatu beharko ditu.
- 33.8 Kontratistaren kontura dira, halaber, honako hauek: gastuak eta zergak, iragarkiak (buletinetan, egunkari ofizialetan edo edozein komunikabidetan argitaratuak), kontratua formalizatzekoak eskritura publikoa eginez gero, hala nola kontratua gauzatzeko lizentzia eta baimen guztiei lotutakoak. Gainera, kontratistak kontratua betetzeko egin behar dituen gastu guztiok ordaindu beharko ditu: gastu orokorrak; finantza-gastuak; aseguru- eta garraio-gastuak; joan-etorrietarakoak; materialak; instalazioak; bere ardurapeko langileen ordainsariak; egiaztatze eta probatzekoak; eta mota guztietako zergak, hala nola jarduera egiteagatik legokiokeen zerga, eta kontratua betetzearen ondorioz haren indarraldian sor daitekeen beste edozein (horrenbestez, kontusail independente gisa jaso ahal izan gabe).
- Horri dagokionez, kontratuaren publizitate gastuen gehieneko zenbatekoa Taulako **16 paragrafoan** dago zehaztuta.
- 33.9 Taulako **17. paragrafoan** aipatutako epean, kontratistak errespetatu beharko du kontratua gauzatzeari lotuta eskura dezakeen informazioaren konfidentzialtasuna (paragrafo berean dago zehaztuta), edo bere izaeragatik beragatik modu horretan erabili behar denarena.
- 33.10 Kontratistak jakin bezain laster jakinarazi beharko dio Udalari baldintza-orri honetan aipatzen den kontratuaren xede ez diren zer instalazio egon daitezkeen konektatuta modu irregularrean kontratuaren xede direnei. Jakinarazpen horretan, zehatz adieraziko du non dagoen konexio irregularra.
- 33.11 Kontratistak ezingo du besterendu kontratazio-organoari itzuli behar zaion eta emakidari atxikita dagoen ondasunik, eta horrelako ondasunei ezingo die kargarik ezarri, kontratazio-organoak berariaz baimendu ezean.



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

33.12 Kontratastak zerbitzua, obrak eta instalazioak Udalari itzuliko dizkio emakida amaitutakoan, administrazio-klausula berezien baldintza-orriaren 53. klausulan jasotakoaren arabera.

33.13 Azkenik, bere gain hartuko du baldintza-orri honetatik, baldintza teknikoen agiritik, gainerako kontratu-dokumentaziotik eta araudi aplikagarritik ondorioztatutako beste edozein betebeharrak edo erantzukizunak.

34. KONTRATAZIO-ORGANOAREN PRERROGATIBAK

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuan aipatutako baldintzei eta ondorioei lotuta eta mugen barruan, kontratazio-organoak, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 210. artikulua arabera, honako prerrogatiba hauek ditu:

- Kontratua interpretatzea.
- Kontratua betetzeari buruzko zalantzak argitzea.
- Kontratua aldatzea herri-intereseko arrazoiengatik eta baldintza-orri honetako 10. klausularen arabera.
- Kontratua suntsiarazteko eta suntsiarazte horren ondorioetarako erabakia hartzea, baldintza-orri honetako 47. eta 48. klausularen arabera.
- Zigor egokiak jartzea kontratuko betebeharrak ez betetzeagatik, baldintza-orri honetako 33. klausularen arabera.
- Emakida osatzen duten ondasunak nahiz instalazioak eta zerbitzua berreskuratzea hura amaitzean, baldintza-orri honen arabera.
- Zerbitzua nola ematen den kontrolatzea.
- Zerbitzua aldi batez kontrolatzea, baldintza-orri honetan eta arautegi aplikagarrian aurreikusitako kasu eta baldintzetan.
- Emakida berreskuratzea, baldintza-orri honetan eta arautegi aplikagarrian aurreikusitako kasu eta baldintzetan.
- Zerbitzua bertan behera uztea herri-intereseko arrazoiengatik, baldintza-orri honetan eta arautegi aplikagarrian aurreikusitako kasu eta baldintzetan.
- Esleipendunari zuzenketa egokiak ezartzea egin dituen arau-hausteengatik.

35. KONTRATAZIO-ORGANOAREN BETEBEHARRAK

Kontratazio-organoak betebeharrak hauek ditu:



LIZARTZAKO

UDALA

GIPUZKOA

- Kontratastak kontratua plegu honetan, baldintza teknikoen agirian eta gainerako kontratu-dokumentazioan adierazi bezala eta baldintzetan gauzatu ahal izango duela bermatzea.
- Esleipendunari babes egokia ematea, zerbitzua behar bezala eman dezan.
- Kontratastari baldintza-orri honetan aurreikusi bezala ordaintzea.
- Hala egokituz gero, kontratuko prezioak berraztertzea, Taulan aurreikusitakoaren arabera.
- Emakidaren ekonomia- eta finantza-orekari eustea baldintza-orri honetako 11. klausulan adierazitako moduan.
- Kontratastari ordaina ematea, Udalak edo hirugarren batek kontratua bete bitartean gaizki jokatuta eragin ditzakeen kalteengatik.
- Kontratua baldintza-orri honetako 48. klausulan aurreikusitako moduan eta baldintzekin suntsituz gero, galdagarriak diren zenbatekoak ordaintzea kontratastari.
- Esleipendunari kalte-ordaina ematea emakida berreskuratzeagatik, zerbitzua herri-intereseko arrazoiengatik ezabatzeagatik, edo ezin ustiatuzkoa izateagatik Administrazioak kontratuaren ondoren hartutako erabakien ondorioz.
- Kontratastari jakin bezain laster jakinaraztea baldintza-orri honetan aipatzen den kontratuaren xede ez diren zer instalazio egon daitezkeen konektatuta modu irregularrean kontratuaren xede direnei.
- Beharrezkoa den guztia egitea baldintza-orri honetan aipatutako kontratuaren xede den argiztapen publikoko instalazioetan egindako konexio irregularrak desagerrarazteko, eta kontratastari kalte-ordaina ematea haien ondorioz izan ahal izan dituen kostuengatik.
- Kontratastak bere betebeharrak betetzen dituen zaintzea eta kontrolatzea.
- Ordainketei dagokienez, egunean egotea konpainia hornitzailearekin, hornikuntza energetikoaren kudeaketaren prestazioa gauzaten hasten den egunean, kontratastak elektrizitatea merkaturatzen duen konpainiarekiko zorren ordainketa bere gain hartzen duenean.
- Kontratastari baimen egokiak ematea, kontratua sinatzen denetik, elektrizitatearen hornikuntzari dagozkion betebeharren ordainketaz bidezkoztat jotzen duen informazio guztia eska dezan.
- Baldintza-orri honetatik, baldintza teknikoen agiritik eta gainerako kontratu-dokumentaziotik ondorioztatutako beste edozein betebeharrak.

36. Prestazioen hasiera

Kontratuaren iraunaldia alde batera utzi gabe, baldintza-orri honetako 9. klausulan araututa baitago, kontratuaren xede den prestazio bakoitza Taulako **18. paragrafoan** adierazitako unean hasiko da gauzaten kontratista.



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

37. LORTUTAKO AURREZKIEN BERRIKUSPENA

Esleipendunak hitzematen du P4 prestazioa amaitu ondoren, hau da, instalazioak hobetzeko eta berritzeko lanak egin ondoren, lortutako aurrezkoa eta esperotakoa erkatuko dituen txosten bat emango diola Udalari.

Txostena banakoa izango da aginte-zentro bakoitzeko, eta esperotako aurrezkoa lortutakoarekin alderatuko da, hala nola esperotako kW aurrezkoa lortutakoarekin.

Benetan aurreztutakoa esperotakoa baino handiagoa bada, aldea Udalarekin partekatuko da, proposamen idatzi eta Udalak onartuaren bidez.

Baina txikiagoa bada, esleipendunak bere gain hartuko du galdutako aurrezkiaren ehuneko hori.

Gestio hori modu berean egingo da sei hilean behin.

38. LAGUNTZAK ETA DIRU-LAGUNTZAK

38.1 Kontratu honetan aipatzen diren jarduketan zer-nolakoagatik edozein laguntza eta/edo diru-laguntza eska badakioke Estatuko, Autonomiako, Tokiko edo Erkidegoko edozein erakunderi, edo nazioko edo nazioarteko beste edozein erakunde publiko edo pribaturi, kontratista eskatu egingo du, energia-zerbitzuetarako kontratu hau aipatuz, eta horretarako eskabidean komatxo arteko testu hau jarritz:

“Kontratistak hitzematen du ematen zaion laguntza/diru-laguntzaren zenbateko osoa [](g)(k)o Udalerako bi aldeen artean 201_(e)ko _____aren ___(e)an izenpetutako kontratuaren arabera egindako inbertsioak amortizatzeke erabiliko duela”.

38.2 Laguntza edo diru-laguntza ematea erregulatzen duen arauagatik hura Udalak eskatu behar badu instalazioen jabe edo titular moduan, Udalak eskatu egingo du, eta bere burua behartu ematen zaion laguntza/diru-laguntzaren zenbateko osoa kontratistak obrei ekiteko egindako ekarpen ekonomikoa amortizatzen erabiltzera.

38.3 Udalak eta kontratistak baldintza-orri honetan aipatzen den kontratua formalizatzeke eta betearazteke kontratistak hartutako zorra amortizatzerantz bideratuko dituzte laguntzen eta diru-laguntzen zenbateko guztiak. Horretarako,



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

zorraren amortizazio moduan ere hartuko da aipatu kontratua betetzeko ekarpen ekonomikoa finantzatu dutenekiko zorrari dagokiona, betiere hark berekin ez badakar laguntza edo diru-laguntza ematea arautzen duten oinarriak haustea.

- 38.4 Udala edo, hala egokituz gero, kontratista, diru-laguntzaren zenbateko osoa edo konturako edozein kopuru jaso ondoren, horren berri emango beharko dio beste aldeari.

39. Kontratua lagatzea

Kontratutik sortutako eskubideak eta betebeharrak hirugarren bati laga ahal izango dizkio kontratistak, betiere Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 226. artikuluan aipatutako kasuak eta baldintzak betetzen badira.

40. AZPIKONTRATAZIOA

- 40.1 Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 289. artikuluan xedatutakoari jarraituz, zerbitzu osagarriak baino ezingo dira azpikontratatu.

Horretarako, kasu bakoitzean, zerbitzuaren zer-nolakoa kontuan hartuko da, nagusia edo osagarria den erabakitzeko. Nolanahi ere osagarritzat hartuko dira kontratu honen babesean egin beharreko obrak eta kanpoko herri-argiztapenerako instalazioen mantentze-lanak gauzatzeko baliabide teknikoek ekarpenak.

- 40.2 Kontratistak hirugarren batzuekin hitzar dezake kontratuko prestazio osagarrien zati bat egitea, betiere Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 227. artikuluan aipatutako baldintzak betez gero; gainera, legetestu beraren 228. artikuluan aipatutako baldintzak eta betebeharrak bete beharko ditu. Dena dela, kontratistak bere gain hartuko du Udalaren aurrean haiek gauzatzearen gaineko erantzukizun osoa.

- 40.3 Kontratistak azpikontratatzeko asmoa duela jakinarazi beharko dio Udalari, hala nola azpikontratazioak zer prestazio osagarritan izango duen eragina eta nor den azpikontratista; gainera, azken horren gaitasuna justifikatu beharko du, haren elementu teknikoek, giza baliabideek eta esperientziari erreferentzia eginez.

- 40.4 Era berean, aurreko paragrafoan aipatutakoen berri Udalari emateko idazkiarekin batera, kontratistak egiaztatu beharko du azpikontratista ez dagoela gaitasungabetuta ordenamendu juridikoaren arabera kontratatzeke, edo ez dagoela Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 60.



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

artikuluko kasuetakoren baten barruan. Egiatzatze hori azpikontratatistaren erantzukizunpeko adierazpen bidez gauzatu ahal izango da.

40.5 Taulako **19. paragrafoan** dago adierazita zein den, hala egokituz gero, kontratatistak azpikontrata dezakeen gehieneko portzentajea; horretarako, ez dira kontuan hartuko kontratista nagusiari lotutako enpresekin egindako azpikontratuak.

40.6 Azpikontratatistek ez dute inola ere erantzukizun zuzenik izango udal kontratatzailearen aurrean, kontratu nagusia eta azpikontratuak gauzatzea dela eta kontratatistak haiekin hartutako betebeharrengatik.

41. AURREKO KONTRATISTEKIKO HARREMANA

41.1 Udalak zaindu egingo du aurreko kontratista(e)k erraztasunak ematen ditu(zt)ela baldintza-orri honetan aipatzen den kontratuaren xede diren zerbitzu guztiak edo batzuk jasotzen ditu(zt)en aurreko kontratu(ar)en kontratist(ar)en eta azken honen kontratatistaren arteko trantsizioa egokia eta eraginkorra izan dadin.

41.2 Baldintza-orri honetan aipatzen den kontratuaren esleipenduna inola ere ez da izango aurreko kontratist(e)(a)k egindakoen erantzulea, ez eta argiztapen publikoaren zerbitzua ematean gertatzen diren akatsen erantzulea, baldin eta haien eragilea eskualdaketa akastuna eta esleipendunari ezin egotz dakiokenea bada, edo aipatu eskualdaketa hori gertatu aurretik zeuden akatsak badira.

42. KONTRATISTARI ORDAINTZEA

42.1 Kontratistaren eskubidea da benetan egindako zerbitzuen ordaina jasotzea, kontratu formalizatuan hitzartutako prezioaren eta baldintza-orri honetan adierazi bezala onartutako haren aldaketen arabera.

42.2 Dena dela, kontratatistak hilerok egingo ditu fakturak benetan emandako zerbitzuengatik, eta faktura horiek nahitaezkoa izango dute Udaleko Zerbitzu Teknikoek egindako lanaz aldeko irizpena ematea. Txosten hori egindako zerbitzuen onarpen berriazko eta formala izango da ondorio guztietarako.

42.3 Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 216. artikulua arabera, kasuan kasuko fakturaren dataren ondoko hogeita hamar egunak



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

izango ditu Udalak prezioa ordaintzeko kontratistari, eta atzeratzen bada, berandutze-interesak eta kobrantza-kostuen kalte-ordainak ordaindu beharko dizkio kontratistari hogeita hamar eguneko epe hori igarotakoan, 3/2004 Lege, abenduaren 29ko, merkataritza-eragiketetako berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituenean adierazitako moduan.

- 42.4 Ordainketa lau hilabetetik gora berandutu bada, kontratistak eten egin dezake kontratuaren betetzea, baina Udalari horren berri eman behar dio, hilabete lehenago, etenaldi horretatik sor daitezkeen eskubideak onartuak izan daitezzen Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuan jasotakoaren arabera.

Kontratistak kontratua eteten badu klausula honetan adierazitako moduan, besteak beste, konpainia hornitzaileari fakturak ordaintzeari utzi ahal izango dio etenak irauten duen bitartean. Etenaldi horretan, Udalak ordaindu beharko dizkio faktura horiek, ordainketak bere izenean helbideratuta.

- 42.5 Baldintza-orri honetan aipatzen den kontratua suntsiarazteko kausa izango da Udala sei hilabete baino gehiago berandutzea kontratistari kontratuaren arabera agindu zizkion kontraprestazioak edo baliabide lagungarriak emateko orduan.

- 42.6 Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 284. artikulua arabera, Udalak ez badizkio ematen esleipendunari baldintza-orri honetan aurreikusitako ordainsariak, edo agindutako baliabideak ez baditu ematen erabakitako epeetan, eta, hala ere, kontratua ez bada suntsiarazten, edo kontratistak ez badu suntsiarazterik eskatzen, zenbateko horien edo baliabideei dagozkien balio ekonomikoen berandutze-interesak jasotzeko eskubidea izango du esleipendunak, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 216. artikuluan adierazitakoaren arabera.

43. KOBRENTZA-ESKUBIDEAK ESKUALDATZEA

- 43.1 Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 218. artikuluan xedatutakoaren arabera, kontratistak kontratu honen ondoriozko kobrantza-eskubideak laga ahal izango dizkie hirugarrenei.

- 43.2 Kobrantza-eskubidea lagatzea Udalaren aurrean eraginkorra izango bada, ezinbesteko baldintza da Udalari kobrantza-eskubidea lagatzeko erabakia frogatzeko moduan jakinaraztea.



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

43.3 Kontratatistak lagatako kobrantza-eskubideen bigarren eta hurrengo lagapenak eraginkorrak izan daitezen, bete beharreko baldintza izango da aurreko paragrafoan ezarritakoa.

43.4 Udalak lagapen-erabakiaren berri izan ondoren, lagapen-hartzailearen alde egin behar da ordaintzeko agindua. Udalari lagapenaren berri eman aurretik, kontratistaren edo lagatzailearen izenean egindako ordainketa-aginduek kitatze-ondorioak sortuko dituzte.

44. EZ-BETETZEAK ETA ZIGORRAK

44.1 Kontratatistak kontratuak iraun bitartean egindako ez-betetzeak oso larriak, larriak eta arinak izango dira. Taulako **20. paragrafoan** zehazten dira ez-betetze guztiak eta dagozkien zigorrak.

44.2 Kontratazio-organoaren eta ez beste ezeinen eginkizuna da edozein ez-betetze aurreko multzoetako batean sartzea kontratistari entzun ondoren.

45. ZERBITZUAN ALDI BATEZ ESKU HARTZEA

Kontratatistak kontratua bete ez duelako zerbitzu publikoan ondorio larriak eta beste modu batera konpon ez litezkeenak gertatuz gero, eta Udalak kontratua ez suntsiaraztea erabakiz gero, kontratuan esku-hartzea erabaki dezake egoera hori desagertu arte. Dena dela, kontratatistak eragindako kalte-galerak ordaindu beharko dizkio Udalari.

V. KONTRATUA AZKENTZEA ETA JURISDIKZIOA

46. AZKENTZEKO KAUSAK

Kontratua suntsiarazteagatik edo betetzeagatik azkenduko da hurrengo klausuletan adierazitako moduan.

47. KONTRATUA SUNTSIARAZTEA

Kontratu-dokumentazioan, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 85. artikuluan, 223.ean –d) eta e) idatz-zatiak salbuetsita– eta 286.ean aipatutakoak dira kontratua suntsiarazteko kausak. Gainera, espezifikoki, Taulako **21. paragrafoan** berariaz aurreikusitakoak dira suntsiarazteko kausa.



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

48. SUNTSIARAZTEAREN ONDORIOAK

- 48.1 Suntsiaraztearen ondorioek Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 225. eta 288. artikuluetan eta baldintza-orri honetan aurreikusitakoari jarraitzen diote.
- 48.2 Nolanahi ere, eraturako bermea galdu, itzuli edo ezereztea bidezkoa den ala ez berriaz adierazi beharko da kontratua suntsiarazteko erabakian. Bermea galtzea kasu bakarrean erabakiko da, hau da, kontratistaren erruz suntsiarazten bada kontratua.
- 48.3 Kontratua bi alderdiak ados jarrita suntsiarazten denean, alderdi baten eta bestearen eskubideak alderdiek balio osoz onartutakoari egokitu behar zaizkio.
- 48.4 Udala bada kontratuko betebeharrak bete ez dituen, berak ordaindu beharko ditu, oro har, ez betetzearen ondorioz kontratistari sortutako kalte eta galerak.
- 48.5 Kontratistaren erruz bete gabe geratzeagatik suntsiarazten bada kontratua, sortutako kalte eta galeren ordainak eman beharko dizkio kontratistak Udalari. Kalte-ordaina, lehenengo eta behin, eratu den bermetik ordainduko da, inola ere baztertu gabe bermetik gorako zenbatekoari dagokionez kontratistak izan dezakeen erantzukizuna.
- 48.6 Kontratua suntsiarazteko arrazoia bada Udala sei hilabetetik gora berandutzen dela kontratistari kontratuaren arabera agindu zizkion kontraprestazioak edo baliabide lagungarriak emateko orduan, entrega-epea amaitzen denetik zor zaizkion zenbatekoen berandutze-interesak edo itundutako balio ekonomikoen berandutze-interesak jasotzeko eskubidea izango du kontratistak; hain zuzen ere, merkataritza-eragiketetan berandutzearen aurkako neurriak ezartzeko legean dator zehazturik berandutze-interes hori. Era berean, jasandako kalte eta galerei dagozkien zenbatekoak jasotzeko eskubidea izango du.
- 48.7 Bestalde, 225. artikuluan xedatutakoa gorabehera, Udalak edo kontratistak kontratuko betebeharrak bete gabe uzteak izango dituen ondorioak zerbitzuaren xedapen espezifikoen arabera kontratuari eragin diezaioketenak izango dira.
- 48.8 Kontratua suntsitzen denean, gauzatutako obra eta instalazioen prezioa ordainduko dio Udalak kontratistari, gauzatu eta bere jabetzako bihurtuko diren obra eta instalazioena, hain zuzen. Prezioa, obra eta instalazioen egoeraren eta ondasunak itzultzeko falta den denboraren arabera ezarriko da.



LIZARTZAKO

UDALA

GIPUZKOA

48.9 Kontratua zerbitzua berreskuratzeagatik, ezabatzeagatik edo kontratua egin eta gero Administrazioak hartutako erabakien ondorioz zerbitzua ustiatzea ezinezkoa izateagatik suntsiarazten bada, alde batera utzi gabe aurreko klausulan xedatutakoa, eragindako kalteen eta galeren ordaina eman beharko dio administrazioak kontratistari, jaso gabe utzitako geroko irabaziak barne; horretarako, azken bost urteetako ustiapeneko emaitzak hartuko dira kontuan, bai eta administrazioari itzuli behar ez zaizkion obrek eta instalazioek galdu duten balioa ere, haien amortizazio-mailaren arabera.

48.10 Era berean, kontratua kontratistarengatik suntsiarazten ez den kasu guztietan, Udalak finantzaketa-gastuak ordainduko dizkio hari, bai eta kontratua formalizatzeko eta betearazteko abiarazitako finantzaketa-sistema likidatzearen edo ezereztearen ondorioz benetan sortutako beste gastuak ere.

48.11 Ordaindu beharreko kopuruak inola ere ez dira txikituko zigorrak, kalte-ordainak edo kontratistak Udalari edo hirugarrenei ordaindu beharreko beste edozein kopuru egoteagatik, eta horiek, hala egokituz gero, Udalak eskatuko dizkio kontratistari zuzenbidearen arabera bidezkoa den beste edozein bide erabiliz. Hori guztia behin betiko bermearen balizko konfiskazioa baztertu gabe egoki diren kasuetan.

49. EMAKIDA BERRESKURATZEA ETA ZERBITZUA EZABATZEA

49.1 Udalak, herri-intereseko arrazoiengatik, emakida berreskuratzea erabaki ahal izango du, zerbitzua zuzenean kudeatzeko, bai eta zerbitzua ezabatzea ere.

49.2 Kasu horietako bat gertatzen bada, gauzatutako obren eta instalazioen prezioa ordainduko dio Udalak kontratistari, gauzatu eta bere jabetzako bihurtuko diren obrena eta instalazioena, hain zuzen. Prezioa obren eta instalazioen egoeraren eta ondasunak itzultzeko falta den denboraren arabera ezarriko da.

49.3 Era berean, Udalak kalte-ordaina emango dio kontratistari, eragindako kalte eta galerengatik, hark geroan jasoko ez dituen irabaziak barne, eta, horretarako, azken bost urteetako ustiapenean izandako emaitzak hartuko dira kontuan, bai eta Udalari itzuli behar ez zaizkion obrek eta instalazioek galdu duten balioa ere, amortizazio-maila kontuan hartuz.

49.4 Udalak finantzaketa-gastuak ere ordainduko dizkio esleipendunari, bai eta kontratua formalizatzeko eta betearazteko abiarazitako finantzaketa-sistema likidatzearen edo ezereztearen ondorioz benetan sortutako beste gastuak ere.



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

49.5 Ordaindu beharreko kopuruak inola ere ez dira txikituko zigorrak, kalte-ordainak edo esleipendunak Udalari edo hirugarrenei ordaindu beharreko beste edozein kopuru egoteagatik, eta horiek, hala egokituz gero, Udalak eskatuko dizkio esleipendunari zuzenbidearen arabera bidezkoa den beste edozein bide erabiliz.

50. KONTRATUA BETETZEA

50.1 Kontratatik kontratua bete duela jotzeko, erabakitako prestazio guztiak gauzatu behar ditu, kontratuak xedatutako moduan.

50.2 Kontratuaren xede diren prestazioetakoren bat kontratu-epea amaitu baino lehen guztiz burutuko dela aurreikusten bada, Udalak egintza formal eta adostasunezko bat gauzatu beharko du Taulako **22. paragrafoan** zehaztutako epean; epe hori kontratatik aipatu prestazioa amaitu eta eskaera egiten duenetik kontatzen hasiko da. Hori guztia baldintza teknikoaren agirian adierazitako moduan.

51. Berme-epea

Berme-epea Taulako **23. paragrafoan** adierazitakoa izango da, kontratua guztiz betetzen denetik kontatzen hasita.

52. BERMEA ITZULTZEA ETA EZEREZTEA

52.1 Udalak erabakiko du bermea itzultzea edo ezereztea, berme-epea amaitu eta kontratua behar bezala bete ondoren, edo kontratistaren errurik gabe kontratua suntsiarazi, baldintza-orri honetako 47. klausulan jaso bezala.

52.2 Berme-epea amaitu eta gero, bermearen kontra gauzatu beharreko erantzukizunik agertzen ez bada, itzuli egingo da eraturako bermea, edo ezereztu abala edo kauzio-asegurua.

Bermea itzultzeko erabakia berme-epea bukatu eta bi hilabeteko epean hartu eta jakinarazi beharko zaio kontratistari. Epe hori bukatutakoan, Udalak zor zaion kopurua ordaindu beharko dio kontratistari, gehi aipatutako epea bukatu denetik bermearen itzulketa gauzatzen den egunera arte igarotako aldiari dagokion diruaren legezko interesa, Udalari egotz dakioken arrazoiren batengatik itzulketa atzeratu bada.

53. ITZULTZEA



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

- 53.1 Kontratu-epea amaitutakoan, zerbitzua Udalari itzuliko zaio, eta esleipendunak kontratuaren barruan egindako obrak eta instalazioak kontserbazio- eta funtzionamendu-egoera egokian eman beharko ditu.
- 53.2 Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 283. artikuluan xedatutakoarekin bat, itzultze-akta egin aurreko 30 eguneko epean, kontratazio-organoak instalazioen ikuskapena egingo du proiektuaren zuzendari teknikoaren aurrean, ondasunak hitzartutako baldintzetan itzul daitezten.
- 53.3 Esleipendunari egotz dakizkiokeen kalteak badaude, ikuskapen-akta oinarria izan ahal izango da dagokien espedientea bideratzeko, eta espediente horretan esleipendunari egin ditzala eskatuko zaizkion konponketen zenbatekoa zehaztuko da. Esleipendunak ikuskapen-aktan zehaztutako epean egingo ditu konponketak, eta epe hori inoiz ezingo da izan 30 egunetik gorakoa. Esleipendunak aipatu konponketak egin ezean, Udalak egin ahal izango ditu, eta zenbatekoak esleipendunari galdatuko dizkio. Horretarako, konponketen zenbatekoa behin betiko bermeari aplikatuko zaio, eta hura amaitzen denean, likidazio egokia egingo zaio esleipendunari.
- 53.4 Obretan, instalazioetan edo zerbitzuetan aurkitutako akatsak konpondu ondoren, esleipendunak ez du beste betebeharririk izango, berme-epea baztertu gabe, baldintza-orri honetako 51. klausulan jasotako moduan.
- 53.5 Itzultze-akta kontratazio-organoak eta proiektuaren zuzendari teknikoak egin beharko dute.

54. JURISDIKZIO ESKUDUNA

Administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioa izango da baldintza-orri honetan aipatzen den kontratuaren prestaketari, esleipenari, ondorioei eta suntsiarazteari buruzko auziak ebazteko jurisdikzio eskuduna.

Administrazioarekiko auzietarako epaitegiek edo auzitegiek diotena beteko du kontratistak, edozein foru edo pribilegiari uko eginez.

Lizartzako Udalerriko Kanpoko Argiztapen-Zerbitzuaren Kudeaketa Kontratatzeko Administrazio-Klausula Berezien Baldintza Orriak, aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartuak izan dira.



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

KONTRATAZIO MAHAIA IZENDATZEA

Organo hau, Prozedura irekia bidez tramitatzen ari den Lizartzako Udalerriko Kanpoko Argiztapen-Zerbitzuaren Kudeaketa kontratazioari dagokionez, SPKLren 295. artikuluan eta HAKLAOren 79. artikuluan xedatutakoa betez, erabaki da:

1.- Honako hauek Kontratazio Mahaiko kide izendatzea:

Mahaiburua: Begoña Balerdi Urdampilleta

Mahaikideak: Juan Jose Gogorza Balerdi

Jose M^a Sarasola Etxeberria

Aholkularia: Alejandro Castro Ubetagoiena

Idazkaria: Ana Jesus Zabala Garmendia (hitza bai baina botorik ez)

Arkitektoa: Aritz Orruño Erauskin (hitza bai baina botorik ez)

2.- Kontratazio Mahaiarentzako jarduera-arau hauek onartzea:

- a) Kontratazio Mahaiko bilkurakideen gutxieneko kopurua azaroaren 26ko 30/1992 Legean kide anitzeko organoentzat xedatutakoaren menpe egongo da.
- b) Mahaiak bilkurakideen botoen gehiengo soilez hartuko ditu bere erabakiak eta ez da abstenitzerik egongo.
- c) Mahaiak egiten dituen bozketen berdinketa egonez gero, berriro bozkatuko da eta, horretan ere, berdinketa izanez gero, mahaiburuak erabakiko du.
- d) Mahaiaren bilkurak egiteko beharrezkoa da aurretiaz mahaiburuak idatzizko deialdia eta gai-zerrenda egitea.

7.- HERRI BARATZEEN EMAKIDA ETA ERABILERA ARAUTZEN DITUEN ARAUDIA

Lizartzako Herri Baratzeen Emakida eta Erabilera arautzeko udal-ordenantza onartzea Udalaren interesekoa dela aintzat hartuta;

Aztertuta Idazkaritzak, 2013ko maiatzaren 22an, legedi aplikagarriari eta aipatutako ordenantza onartzeko jarraitu beharreko prozedurari buruz idatzitako txostena;

Aztertuta, orobat, Idazkaritzak, Lizartzako Herri Baratzeen Emakida eta Erabilera arautzeko udal-ordenantzarako egindako proiektua.



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.d) eta 49. artikuluen arabera, bilerara bertaratutako kideek gaia aztertu eta bozkatu ondoren.

ERABAKI DA

LEHENA. Lizartzako Herri Baratzeen Emakida eta Erabilera arautzen duen udal-ordenantzari hasierako onarpena ematea agiri honetan jasotzen den moduan:

LIZARTZAKO HERRI BARATZEEN EMAKIDA ETA ERABILERA ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA

ARRAZOIEN AZALPENA

Lizartzako Udalari, Udalbatzaren ekimenez eta Tokiko Agenda 21 garatze aldera, beharrezkoa iruditu zaio aisiarako baratzeak sortzea sustatzea, helburu sozialekin, Lizartzako A-2 Zerrategian, Udalak dauzkan lursailetan.

Udalaren aisiarako baratzeak herritarrentzako eskaintza pedagogikoa izango da, edonork espazio publiko bat eskura izan dezan, lurra lantzeko eta norberak kontsumitzeko fruituak izateko.

Aisiarako baratzeak espazio irekiak dira eta hainbat eta hainbat eginkizun bete ditzakete, hauek direlarik garrantzitsuenak:

- Autokontsumorako ekoiztea. Horretarako erabili dira, tradizioz, baratzeak.
- Ingurumen eta hirigintza eginkizuna, hain zuzen ere baratzeek espazio libreetako eta, bereziki, hiri inguruetakoko balio eta eginkizun kultural eta paisajistikoak zaintzeko duten ahalmena. Natura errespetatzeko modu bat da, naturatik fruituak lortzeko, baratzezaintza bidez eta ingurune naturala errespetatuz.
- Eginkizun soziala, horretarako heziketa jarduerak, jarduera ludiko eta terapeutikoak... baliatuz. Horiei esker ulertzen da, neurri batean, jendeak halako espazioetan berriro jarri duen interesa.
- Osasuna. Baratzeak mesedegarriak dira norberaren ongizate, osasun eta elikadurarako. Bai OMEk bai Europar Batasunak administrazio publikoei iradoki die adin guztietako herritarrek daramaten egoneko bizitzari aurre egitera bideratutako ohiturak sustatzeko estrategiak aplikatzea.



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

- Eginkizun kulturala. Baratzeen tradizioa gure herri kulturaren eta tokian tokiko bizimodu eta izaeren parte da. Baratzeak baserriaren eta herriaren arteko lotura dira, naturarekiko errespetua irakasteko eta naturaren aberastasuna aintzat hartzeko apustu bat, eta balio dute gure kultura bizitoki dugun lurraldean errotzea sustatzeko.

Administrazio publikoek eta, horien artean, toki administrazioek, gero eta indar handiagoz ari dira herritarrei eskain diezazkieketen zerbitzuak antolatzen, eguneko bizimodua baino gehiago eragile publikoek martxan jartzen dituzten ekintza edo programetan modu aktiboan parte hartzea sustatzea nahi dutelako.

Erakunde publikoek gaur egun dituzten beste kezka nagusietako batzuk dira ingurumena babestea, herritarren bizi kalitatea sustatzea, eta hobetzea, batetik, elikadura osasuna eta, bestetik, nekazaritza ekoizpenarekin zerikusia duten ingurumen jarduerak.

Udalak, herritarrengandik gertuen dagoen administrazio gisa, herritarrentzat mesedegarri diren ekintzak sustatzen ditu, herritarrek haien denbora librean zer egina izan dezaten. Aisiarako baratzeak eskura jarri dira, herritarrek jarrera aktiboa izan dezaten denbora librean eta aisialdian. Era horretan, osasun eta ingurumen balioak sustatzen dira.

Udalaren asmoa da ordenantza honen bidez baratze horien erabilerari aplikatzeko erregimena prestatzea, eduki hauekin: aisiarako baratzeak adjudikatzeko prozedura, dagoen eskariaren arabera hautaketa egiteko irizpideak, onuradunen eskubideak eta betebeharrak eta, azkenik, jokabide oker edo axolagabeengatik egon daitezkeen arau-hausteak eta zigorrak.

AURKIBIDE SISTEMATIKOA

1. titulua.Xedapen orokorrak

1. artikulua. Ordenantzaren xedea.
2. artikulua. Aplikazio eremua.
3. artikulua. Ordenantzaren helburuak.
4. artikulua. Aisiarako baratzeen helburuak.
5. artikulua. Erabilerari buruzko printzipio orokorrak.
6. artikulua. Aplikatuko den erregimena.
7. artikulua. Finantzaketa.



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

II. titulua. Baratzeak esleitzeko prozedura

8. artikulua. Prozedura erregimena.
9. artikulua. Onuradun izateko baldintzak.
10. artikulua. Baimenak emateko prozedura.
11. artikulua. Baimenen behin-behinekotasuna.
12. artikulua. Esleipen berriak.
13. artikulua. Baimenak eskualdatzea.
14. artikulua. Baratzeen erabileraren gaineko beste gai batzuk.
15. artikulua. Baimenen iraungitzea.

III. titulua. Baratzea erabiltzeko eta ustiatzeko baldintzak

16. artikulua. Baratzea erabiltzeko baldintza orokorrak.
17. artikulua. Lurra ustiatzea.
18. artikulua. Mugak eta sarbideak zaintzea.
19. artikulua. Ongarriak eta produktu fitosanitarioak erabiltzea.
20. artikulua. Lurra kutsatzea.
21. artikulua. Ureztatzeke baldintzak.
22. artikulua. Hondakinen tratamendua.
23. artikulua. Lurrak emandako fruituen erabilera.
24. artikulua. Mantentze-lanetako gastuak.
25. artikulua. Materialen inbentarioa.
26. artikulua. Ingurumen hezkuntza.

IV. titulua. Erantzukizun erregimena

27. artikulua. Erantzukizun mankomunatua.
28. artikulua. Hirugarrenei eragindako kalteak.
29. artikulua. Kalte eta galeren ordainak.
30. artikulua. Baratzeak zeuden moduan entregatzea.

V. titulua. Aisiarako baratzeen antolaketa

31. artikulua. Baratzea gestionatuko duten organoak eta langileak.

VI. titulua. Diziplina erregimena

32. artikulua. Arau orokorrak.
33. artikulua. Arau-haustekak.



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

- 34. artikulua. Zehatzeko prozedura.
- 34. artikulua. Kalteak konpontzeko premia.

I. titulua. Xedapen orokorrak

1. artikulua. Ordenantzaren xedea

- 1. Ordenantza honen xedea da aisiarako udal baratzeen partzelak erabiltzeko, gozatzeko eta aprobetxatzeko baldintzak arautzea.
- 2. Ordenantza honen xedea da, halaber, aisiarako baratzeetako partzelak Lizartzan bizi direnei adjudikatzeko prozedura antolatzea. Onuradunek Ordenantzako 9. artikuluko baldintzak bete behar dituzte.
- 3. Ordenantza honen xedea da, baita ere, diziiplina erregimena arautzea, hau da, arau-hausteak eta arauak hausteagatik baratzeen erabileraren lagapen hartzaileei aplikatzeko zigorrak ezartzea.

2. artikulua. Aplikazio eremua

- 1. Ordenantzaren aplikazio eremu objektiboak hartzen ditu aisiarako baratzeak egongo diren Udalaren sail edo partzela guztiak.
- 2. Eremu subjektiboari dagokionez, arau honek xedatzen duena aplikatuko zaie Lizartzako herrian bizi eta legez aisiarako baratzeak erabiltzeko, gozatzeko eta aprobetxatzeko moduan dauden guztiei.

3. artikulua. Ordenantzaren helburuak

- 1. Ordenantza honen helburuak dira, aisiarako baratzeetarako partzelak adjudikatzeko prozedura arautu eta baratze horiek erabiltzeko erregimena ezartzeaz gain, arau juridiko berean jasotzea bi alderdi horiek, hau da, prozedura eta erregimena, eta, baita ere, aisiarako baratzeen erabilera, gozamina eta aprobetxamenduari dagokion guztia.
- 2. Arau honen helburua da, baita ere, aplika daitekeen erregimena argitzea eta erregimen horren berri ematea aisiarako udal baratzeak erabili edo baliatuko dituztenei.

4. artikulua. Aisiarako baratzeen helburuak



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

1. Aisiarako baratzeen udal programak helburu hauek izan behar ditu, besteak beste:
 - a) Udalerriko biztanleei aisialdirako eta jarduerarako espazio bat eskaintzea.
 - b) Erabiltzen edo aprobetxatzen ez diren hiri espazioak erabilera publikoetarako berreskuratzea.
 - c) Herritarren partaidetza eta garapen iraunkorra sustatzea, biodibertsitate espazioak sortuz.
 - d) Iraunkortasuneko udal politikak antolatzea eta, horretarako, giza garapena eta ingurumena uztartzea, giltzarri gisa.
 - e) Udala eta herritarrak biodibertsitatearen zaintzan inplikatzeko, barazki espezie autoktono eta tradizionalak berreskuratuz eta aintzat hartuz.
 - f) Laborantzan ingurumen jardunbide egokiak sustatzea: hondakinak gestionatzea, ura aurrezteko, nekazaritza tradizionalerako usadioak eta ohiturak berreskuratzea, e.a.
 - g) Baratzeek heziketarako eta jolaserako duten balioa indartzea.
 - h) Ingurune naturalaren eta giza jardueren arteko loturak ezartzea eta kontuan izatea.
 - i) Elikadura osasungarria eta osasunerako hobeak diren ohiturak sustatzea.
 - j) Ingurumena gehiago ezagutzea eta errespetatzea sustatzea.
 - k) Belaunaldien arteko harremanak eta hartu-emanak sustatzea, ikastetxeekin jarduerak antolatuz.
 - l) Gizarte taldeen arteko elkarbizitza eta harremanak sustatzea, gizonezkoen eta emakumezkoen arteko proportzioa errespetatzea eta kolektibo kaltetuenei laguntzea.
2. Udalak aisiarako baratzeek behar bezala funtzionatzeko ezinbestekoak diren zerbitzu orokorrak eta premiak definitu beharko ditu: ur hornidura, sarbideak, hondakinen tratamendua, eraikinak dimentsionatzea eta egokitzea, partzelen



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

banaketa, minusbaliatuen premiak...

5. artikulua. Erabilerari buruzko printzipio orokorrak

1. Zaintza eta mantentze-lana. Aisiarako baratzeen erabiltzaileen betebeharrak nagusia izango da lagatzen zaizkien instalazioak zaintzea eta mantentzea, baratzeak behar den arretaz erabiliz eta higiene eta osasun aldetik zainduz. Alde horretatik, ezin da luraren konposizio biokimiko edo estrukturala aldatu, salbu ongarri organikoekin eta lagatzaileak berariaz baimendutako gaiekin. Gainera, baratzeen hartzaileek, laga zaien lursailean usurpazioen bat gertatuz gero, Udalarari jakinarazi behar diote.
2. Instalazioen erabileran errespetua. Aisiarako baratzeen hartzaileek ez diete eragozpenik, kalterik edo galerarik eragingo gainerako partzelen hartzaileei.
3. Ez merkaturatzea. Debekatuta dago baratzeen hartzaileek partzelak helburu komertzialekin edo ustiapen ekonomikorako lantzea.
4. Autohornikuntza. Baratzeak ereinda lortutako fruitu eta barazkiak norberaren edo familiaren kontsumorako bakarrik izango dira, ezin dira etekin ekonomikoak lortzeko erabili, lehen esan bezala.
5. Ingurumen prebentzioa. Baratzeen erabileraren onuradunek ez dituzte baliatuko lurra eta egon litezkeen akuiferoak kutsatu ditzaketen ongarri eta produktu fitosanitarioak.

6. artikulua. Aplikatuko den erregimena

1. Aisiarako baratzeen adjudikazio, edukitza eta gozamenari dagokionez, Ordenantza honetako erregimena aplikatuko da.
2. Subsidiarioki, arau hauetako xedapenak aplikatuko dira:
 - a) Azaroaren 3ko 33/2003 Legea, administrazio publikoen ondareari buruzkoa (I. Kapituluak, IV. Tituluak), APOL.
 - b) Uztailaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretua, zeinaren bidez Toki Erakundeen Ondasunei buruzko Arautegia onartu zen.

7. artikulua. Finantzaketa



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

1. Aisiarako baratzeak haien onuradunek zaindu beharko dituzte, baita zaintzeko gastuak ordaindu ere; hori, Ordenantza honetako 24. artikuluan aurreikusitako moduan.

II. titulua. Baratzeak esleitzeko prozedura

8. artikulua. Prozedura erregimena

1. Aisiarako baratzeen erabilera berezia da (erabilera erkide berezia); horregatik, aisiarako baratzeen onuradun edo lagapen hartzaile izateko Udalaren baimena beharko da.
2. Baimen hori lehia erregimenean emango da, Ordenantza honetan ezarritako prozedurari jarraiki.

9. artikulua. Onuradun izateko baldintzak

1. Aisiarako baratzeak erabiltzeko baimena Lizartzako biztanleek lor dezakete, baldin eta udalerrian errolatuta badaude eta, gainera, baldintza hauek betetzen badituzte:
 - a) Udalaren zergen ordainketa egunean edukitzea.
 - b) Eskatzaileak edo helbide berean errolatutako senideren batek aisiarako baratzeetan partzela gehiago ez edukitzea. Etxebizitzako titular bana bakarrik egon daiteke.
 - c) Nekazaritza jardueretarako egokiak diren nekazaritza lursailen edo landa lurren jabe ez izatea.
 - d) Aurrez aisiarako baratzeen erabileran zigorrik ez jaso izana edo esleitutako partzela ez kendu izana.
 - e) Aurreko deialdian aisiarako baratzerik ez eduki izana, salbu deialdi honetan eskari gutxiegi badaude.

10. artikulua. Baimenak emateko prozedura

1. Aisiarako baratzeak hartzeko eta erabiltzeko baimenak lehia erregimenean emango dira, baratze gutxi daudelako.



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

2. Prozedura Udalak hasiko du, ofizioz, tokiko organo eskudunak erabaki ondoren; erabaki horretan jasoko da aisiarako baratzeak hartzeko baimenak emateko deialdia.

Deialdia Udalaren legezko abisuen oholean jarriko da, baita Udalaren web gunean argitaratu ere (www.lizartza.com).

3. Aisiarako baratzaren bat edukitzeko interesa dutenek eskaria aurkeztu beharko dute Udalaren Erregistro Orokorrean; eskariaren eredu normalizatua Erregistroan bertan egongo da.
4. Eskariak aurkezteko epea deialdian zehaztuko da; epeak ezin du izan hamabost egun baliodun baino gutxiagokoa.
5. Epe hori amaitu eta eskari osagabeak osatu ondoren, bideratze fasea hasiko da: aurkeztutako eskariak aztertuko dira eta ikusiko da eskatzaileek aurreko artikuluan jarritako baldintzak betetzen dituzten ala ez; behar izanez gero, baldintzak betetzen diren argi ez dagoen kasuetan, interesdunekin hitz egingo da, eskariak egoki baloratzeko.
6. Aurreko fasea amaitu eta eskari guztiak aztertu ondoren, behin-behineko erabakia argitaratuko da; erabaki horretan agertuko da onartutako en zerrrenda. Onartutako en erabakiaren kontrako erreklamazioak jar ditzakete, hamar egun naturalen buruan, zerrrenda legezko abisuen oholean jarri eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.

Epe hori amaitu eta, hala badagokie, jasotako erreklamazioak interesdunekin hitz egin ondoren ebatzi eta gero, prozedura erabakitzeko eskumena daukan organoak behin betiko erabakia hartuko du. Erabakia aipatu oholean jarriko da; horrez gain, hautatuei erabakiaren berri emango zaie.

7. Esleipendunei emango zaien baimenean honako gai hauek zehaztuko dira:
 - a) Baratzeen erabileraren helburua.
 - b) Partzelaren azalera, kokapena eta zenbakia.
 - c) Esleipendunari dagozkion eskubideak eta betebeharrak, Ordenantza honetan jasotakoaren arabera.



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

- d) Baimenaren iraunaldia eta, beraz, baratzeak erabiltzeko eskubidearen iraupena.
8. Tokiko organo eskudunak aisiarako baratzeak esleitzeko administrazio ebazpena egingo du eta harekin amaituko da administrazio bidea. Administrazio ebazpen horren kontra aukerako berraztertze errekurtsoa jar daiteke, ebazpena egin duenaren aurrean, edo, bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsoa.
9. Aurkeztutako eskariak balorazio txikiagoa jaso duelako aisiarako baratzerik jaso ez duten interesdunekin ordezkoen poltsa egingo da, bideratze fasean jaso duten balorazioa kontuan hartuta.

Aisiarako baratzeak erabiltzeko eta gozatzeko emandako baimenari dagokion eskubideari uko egin edo eskubide hori galduz gero, hurrengo hautagaiari dei egingo zaio, aipatu poltsako ordenaren arabera.

Poltsari bost urtean eutsiko zaio, edo, bost urte igaro baino lehen baratzeak berriz esleitzuz gero, poltsa berria egin arte.

11. artikulua. Baimenen behin-behinekotasuna

1. Aisiarako baratzeak dauden jabari publikoko lurak erabiltzeko eta gozatzeko baimenak behin-behinekoak izango dira. Baratzeak erabiltzeko baimena emango da, betiere, prekarioan.
2. Tokiko organo eskudunak baimenak indarrik gabe utz ditzake, emandakoan jarritako baldintzak betetzen ez badira edo esleipendunek dagozkien eginbeharrak betetzen ez badituzte; baldintza eta betebeharrak horiek Ordenantza honetan daude zehaztuta, 16. artikulutik 26. artikulura.
3. Baimenak urte baterako izango dira eta gehienez bost urterako luzatu daitezke. *(Baimenaren iraunaldia ez luzatzea erabaki da kontuan hartuta baratzeen erabilera mota, ustez egongo den eskaria eta bost urte igaro ondoren baratzeak berriz esleitzeko premia. Udalerrian eskari nahikoa ez badago eta, beraz, baratzeak ezin badira berriz esleitu, Udalak erabaki dezake baimenen iraunaldia luzatzea).*

12. artikulua. Esleipen berriak

1. Uko egite, baja, baliogabetze edo bestelako arazoiren bategatik eta, betiere, Ordenantza honen arabera, esleipendunen batek dagokion aisiarako baratzea



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

erabiltzeko eta gozatzeko eskubidea galtzen badu, Udalak baratze hori beste bati esleitzen diezaioke; esleipendun berriak jarritako baldintzak bete behar ditu.

2. Baratzeak esleitzeko prozeduran ordezkoen poltsa egin bada, utzitako baratzeak berri esleitzeko ordezkoen zerrenda horretako ordena hartuko da aintzat.

Poltsarik ez bada egin, eskari nahikoa ez zegoelako, baratzea hartzeko baimen berria emateko prozedura hasiko da. Prozedura horretan ez bada lehiarik sortzen, baratzea eskaria denbora eta forma egokian aurkeztu duenari emango zaio, zuzenean. Baratzea eskuratzea bati baino gehiagori interesatzen bazaio, 10. artikuluan deskribatutako prozedura beteko da.

13. artikulua. Baimenak eskualdatzea

1. Aisiarako baratzeak erabiltzeko eskubidea ematen duten baimenak ezin dira eskualdatu.
2. Debehatuta dago partzela osoa edo partzelaren parte bat beste bati ematea edo erabiltzen uztea; ezin da inola ere hori egin, ezta aldi baterako ere. Baldintza hori ez betez gero, emakida bertan behera utziko da zuzenean eta Udalak partzelaren jabetza berreskuratzeko ahalmena izango du.
3. Hala eta guztiz ere, ordezkoen poltsarik eta interesdunik ez badago, Udalak baimendu dezake baimena transmititzea, baimen hori emateko kontuan hartu ziren baldintzak betetzen dituen bati.
4. Titularra hiltzen bada, emakida iraungi egingo da eta oinordekoek ez dute inolako eskubiderik izango. Udalak ikusten badu esleipenak iraun duen denboran hildakoak baratzea behar bezala gestionatu duela, haren alargunari eman diezaioke baratzea erabiltzeko eta gozatzeko eskubidea, baldin eta elkarrekin bizi baziren eta, eskariren bat egonez gero, beti Udalak onartuta.

14. artikulua. Baratzeen erabileraren gaineko beste gai batzuk

1. Ez dira onartuko Udalaren Erregistrora deialdian azaldutako prozeduraz kanpo heldutako eskariak. Dena den, horrek ez du esan nahi 14. artikuluko 2. atalean aurreikusitakoa beteko ez denik.
2. Baratzeen erabilerari dagozkion gainerako gaietarako ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuan jabari publikoko ondasunak emateko zehaztutako erregimena



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

beteko da; Dekretu horretan Toki Erakundeen Ondasunei buruzko Arautegia onartu zen.

15. artikulua. Baimenen iraugitzea

1. Udalak baratzeak esleitzeko emandako baimenak iraungi eta baliogabetuko dira, espedientea egin ondoren, arrazoi hauengatik:
 - a) Epea amaitzea.
 - b) Ondasuna fisikoki edo juridikoki galtzea.
 - c) Ondasunak jabari edo erabilera publikoko izateari uztea.
 - d) Elkarren artean adostea.
 - e) Baliogabetzea.
 - f) Ebazpen judizial bat egitea.
 - g) Emakidadunak uko egitea.
 - h) Balioa galtzea.
 - i) Ordenantza honetan edo baimena emateko ebazpenean jasotako betebeharrak eta xedapenak ez betetzea.
 - j) Emakidaduna hiltzea.
2. Aurreko atalean aipatu arrazoiengatik emakida bertan behera uzteko ezinbestekoa da administrazio ebazpena; aurrez, betiere, espedientea bideratu behar da. Horregatik, baimena baliogabetzeko edo iraugitzeko arrazoiaren berri jakin ondoren, Udalak espedientea irekiko du. Baimena baliogabetzen bada Ordenantza honetan jasotako arauen bat hautsi delako, espedientea zehatzailea izango da. Prozedura hasi ondoren, interesdunari baimena baliogabetzeko edo iraugitzeko arrazoiaren berri emango zaio.
3. Gero bideratze fasea hasiko da, interesdunak alegazioak jar ditzan. Interesdunak eskaria eginez gero edo Udalak ofizios aginduta, hamar eguneko frogaldia hasiko da, behar izanez gero.



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

4. Ebazpen proposamena egin aurretik, interesdunak hamar eguneko epea edukiko du egoki irizten zaiona adierazteko, hau da, dokumentuak aurkezteko edo alegazioak egiteko.

Ondoren, tokiko organo eskudunak erabakia hartuko du: baimena irautitzea edo baliogabetzea, edo, hala badagokio, interesdunak aurkeztutako alegazioak onartuz gero edo egindako frogen ondorioz, interesdunak dagokion partzela erabiltzeko eta gozatzeko eskubidea berrestea.

5. Betiere, emandako erabilera baimena irautiz gero, interesdunak ez du izango kalte-ordainik edo konpentsazio ekonomikorik jasotzeko eskubidea.

III. titulua. Baratzea erabiltzeko eta ustiatzeko baldintzak

16. artikulua. Baratzea erabiltzeko baldintza orokorrak

- 1.- Aisialdirako baratzen erabilerarako pertsona adjudikaziodunak behartuta egongo dira baratzak eurek erabiltzera eta ez lagatzera euren erabilera beste pertsona batzuei; ezingo dute onartu beste inoren erabilerarik, eta honako baldintzak bete beharko dituzte, horiei buruz egiten duten erabilera kontuan hartuta:
 - a) Arau orokor gisa, baratzen erabilerari buruzko Araudi honetan jasotako alderdi guztiak errespetatu beharko dituzte.
 - b) Baratzeak erabiltzea inguruan ohikoak edo berezkoak diren baratzien espezieen laborantza eta landaketarako: Uhaza, tomatea, kipula, porrua, kalabaza-txikia, indaba baita inguruan ohikoak diren apainketarako landare eta loreak, aromatikoak eta sendabelarrak, gainerakoak baztertuz.
 - c) Erabiltzeko lagatzen diren instalazioak eskuratutako baldintza berdinetan mantentzea, behar bezala zainduz. Lursailak garbi egon beharko du uneoro, bertan dauden landaketei kalterik eragin gabe.
 - d) Erabilera kontzeptuan jasotzen diren ondasunak ezin hobeto mantendu eta zaintzea. Udalari jakinarazi beharko diote baratz edo instalazioei eragiten dien edozein gertakari, beste erabiltzaile batzuek zein kanpoko pertsonak eraginak izanda ere.
 - e) Udalari baratzaren jabetza itzultzea, lizentziaren epea amaitzen denean, adjudikaziodun pertsona berriek erabiltzeko egokitasun osoz; edo, bestela,



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

lizentziari uko egin edo bertan behera utziz gero, erabakia gauzatzen den unean.

- f) Hasieran lagatzen den lursailaren egitura eta azalera bera mantentzea. Udalak ezarritako mugak aldatzeko aukerarik izan gabe, ezta Udalean eskumena duen organoak aldeztuz aurretik baimendutako obrarik edo itxitararik ere. Era berean, titularrak ezingo du instalatu txabolik, barbakoak, etxolak, biltegiak, e.a.
 - g) Baratzeko beste erabiltzaileei eragozpenik eragitea, kalterik edo minik eragin lezakeen tramankulu, mekanismo edo bestelako sistemen erabilera saihestuz.
 - h) Laborantzan, garbiketan edo baratzeko gainerako zereginetan erabiltzeko substantzien erabilera saihestea, baldin eta kalterik eragin badiezaiokete zoruari.
 - i) Ez bertan behara uztea baratzen erabilera edo laborantza, batik bat fruituak bildu beharko dira baldin eta kiratsa sorrarazten baldin badute, lursaila zikintzen badute, edo paisaiari eta inguruari kalte egiten badiote, izan landarean zein lurtean daudelako.
 - j) Baratzeen barruan ez erabiltzea trakzio mekanikoko ibilgailurik.
 - k) Baratzeetan materialak edo tresnak biltzea saihestea, ez baldin badira ezinbestekoak lurraren laborantzarako. Horretarako Udalak jarriko duen txabola erabili beharko da.
 - l) Baratzak erregatzeko erabili behar den ura, Udalak jarritako askatik hartu beharko da.
 - ll) Baratzetatik sortzen diren fruituak, erabiltzaileen etxerako izan beharko du. Ezin izango da inolako salmentarik burutu.
- 2.- Elementu komunak, bai azpegiturak, bai lanabesak, erabilera eta garbitasun baldintza egokietan errespetatu eta mantendu beharko dira. Erabiltzaileak erabiltzaileen taldearen gehiengoak ezartzen dituen elementu komunak mantentzeko erabakiak bete beharko ditu ezinbestean. Era berean, erabiltzaileen taldeak ordezkari bat edo batzuk aukeratu ahal izango ditu elementu komunak gaineko erabaki lotesleak hartzeko edo Udalarekiko harremanetan bozeramaileak izateko.



LIZARTZAKO

UDALA

GIPUZKOA

- 3.- Lizentziaren titularrak aurreko atalean adierazitako baldintzetako bat beteko ez balu, Udalak lizentzia kendu ahal izango dio.
- 4.- Era berean, erabiltzaileen eurek eguneko-egunero zainduko dute baratzaren kontserbazioa, konponketa, instalazioen mantenimendua eta erabileraren egokitasuna, eta haien erantzukizuna izango da azpiegituren kontserbazioa, konponketa, instalazioen mantenimendua eta erabileraren egokitasuna, baldin eta ez badira ondo erabiltzen.
- 5.- Baratza erabiltzaileek, mantenurako egutegi bat ezarri beharko du, beharrezkoak diren mantenu lanetan laguntzeko (lursailen mugak, bideen, asken garbiketa).
- 6.- Baratzetan sortzen den hondakina konpostatuko da. Bakoitzaren baratzetan jarritako konpostagailua edo eta, jarriko den konpostagailu komunitarioa aprobetxatuz, erabiltzaileen etxeetan sortzen dena ere, konpostagailura eman beharko da.
- 7.- Aprobetxamendu hau, bost urtetarako ematen da. Epe hori amaitzean, Udalak berraztertuko du, aisialdirako baratzeen erabilera.
- 8.- Baimenaren titularrak baldintza horiek betetzen ez baditu, baimena kenduko zaio.

17. artikulua. Lurra ustiatzea

1. Aurreko artikuluan zehaztutakoa ahaztu gabe, baratzeak ustiatzerakoan arau hauek bete behar dira:
 - a) Lurra, lurzorua edo lurpea kaltetzen duen espezie edo landararik ez landatzea. Berez baratzerako edo sail ureztatueterako diren landare espezieak landatu behar dira. Beraz, debekatuta dago nekazaritza estentsiboko landare edo laboreak erabiltzea. Zonako berezko landare espezieak izan behar dute nagusi, adibidez: letxuga, tomatea, tipula, berenjena, pepinoa, kalabazina, baba, e.a. Aldiz, ezin dira landatu zaintza bereziak edo berotegiak behar dituzten landareak.
 - b) Legez landatzea edo ereitea baimenduta ez dagoen espezie exotiko edo psikotropikorik ez landatzea.
 - c) Zuhaitzak ez landatzea, ezta fruta arbolak ere.
 - d) Berotegirik ez jartzea, salbu aisiarako baratzeez arduratzen diren teknikariek



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

baimentzen badute.

- e) Bazka eta baratzeetako hondakinak ez erretzea eta aisiarako baratzeen barrutian surik ez egitea.
- f) Gainerako baratzeetan hondakinik ez botatzea, ezta belar-sastrakarrik edo garbiketa lanetako hondarrik ere.
- g) Baratzeen erabiltzaileei dagokien aprobetxamendua landatu dituzten landareen errendimendua da, hau da, landare horiek eman duten fruitua.
- h) Aisiarako baratzeetan animaliarik ez edukitzea, haztea edo ustiatzea.

2. Baimenaren titularrak baldintza horiek betetzen ez baditu, baimena kenduko zaio.

18. artikulua. Mugak eta sarbideak zaintzea

- 1. Udalak baratzeei jarritako mugak errespetatuko dira, beti.
- 2. Partzelak irekita eduki behar dira, hau da, ezin dira hesolekin edo antzekoekin itxi, salbu Udalak baimentzen badu.
- 3. Erabiltzaileen erantzukizuna izango da baratzerako sarbidea eta instalazioak txukun edukitzea; horretarako, behar diren mantentze-lanak egingo dituzte.

19. artikulua. Ongarriak eta produktu fitosanitarioak erabiltzea

- 1. Baratzeen erabileraren onuradunek ez dituzte baliatuko lurra, egon litezkeen akuiferoak eta azaleko ura kutsatu ditzaketen ongarriak eta produktu fitosanitarioak, ezta atmosferara inguruko fauna, flora eta jendeari kalteak eragin diezazkieketen partikulak isurtzen dituen ongarri edo produkturik ere; hori, Ordenantza honetako 6. artikuluko ingurumena prebenitzeko printzipioan jasotako moduan.
- 2. Ahal duten neurrian, erabiltzaileek erremedio naturalak baliatuko dituzte izurri eta gaixotasunei aurre egiteko, eta lurra aldi-aldi ongarrituko dute, aurrez deskonposatutako gai organikoekin (konposta, simaurra, hondakin organikoak, e.a.), eta ez ongarri artifizialekin.
- 3. Zehazki, barazkiak eta lore landareak landatzeko produktu hauek erabil daitezke



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

baratzean:

- a) Intsektizida naturalak: nikotina, xaboia, peritrina, rotenona eta sufrea.
- b) Intsektizida botanikoak: albaka, ilena, osina, baratxuria...
- c) Fungizida naturalak: sufrea.
- d) Baimendutako ongarri kimikoak: ongarri sinpleak, hau da, amonio sulfatoa, superfosfatoa eta potasa sulfatoa.
- e) Ongarri organikoak: animalien simaurra eta landare konposta.

20. artikulua. Lurra kutsatzea

1. Erabiltzaileek Udalak arlo horretan jar ditzakeen baldintzak bete behar dituzte, adibidez: zuhaitz espezie jakin batzuk landatzea, laborantza lan zehatz batzuk egitea, substantzia berriak eta ongarri naturalak baliatzea, herbizidarik eta produktu fitosanitariorik ez erabiltzea, e.a.
2. Hori oinarri hartuta eta aurreko artikuluari jarraiki, erabiltzaileek, ahal duten neurrian, ez dituzte baliatuko lurra kutsatu dezaketen produktu kimikoak (ongarriak, plagizidak eta herbizidak), ezta lurra eta laboreak kaltetu ditzaketen ongarri kimikoak ere.
3. Ezin dira erabili lurra kutsatu dezaketen garbiketa produktuak. Halaber, debekatuta dago lurra larri kaltetu dezaketen produktu kutsatzaileak isurtzea. Hori ez betez gero, produktua isuri duena izango da eragindako kalteen erantzulea (erantzukizun penala ere izan dezake).

21. artikulua. Ureztatzeko baldintzak

1. Titularrek aisiarako baratzeetako instalazioetan haien eskura jarritako ureztaketa baliabideak erabili behar dituzte.
2. Dauden elementuak bakarrik erabil daitezke, salbu udal teknikariak beste gailuren bat erabiltzeko baimena ematen badu; dena den, debekatuta dago lurra ureztatzeko ihinztigailuak edo inguruko baratzeetara ura heltzea eragin dezaketen gailuak erabiltzea.



LIZARTZAKO

UDALA

GIPUZKOA

3. Betiere, ez da ura xahutuko, eta ez dira baliatuko dagoen ura neurrigabe gastatzea eragin dezaketen ureztaketa metodoak. Baldintza hori ez betez gero, titularrari baimena kenduko zaio.
4. Debekatuta dago baratzeak ureztatzeko ura horretarako prestatuta ez dagoen lekuren batetik eramatea; alde horretatik, ontziratutako ura bakarrik eraman daiteke, jarritako aska publikoan ontziratutakoa.

22. artikulua. Hondakinen tratamendua

1. Erabiltzaileen ardura izango da dagokien partzelan sortutako hondakinak behar bezala tratatzea. Sortutako hondakin organikoak gertuen dagoen bilketa gunean entregatu behar dira.
2. Nekazaritza hondakinekin konposta egin behar da, partzela barruan, edo horretarako jarriko den eremuan. Eta nekazaritza produktu plastikoek eragindako hondakinak era horretako hondakinak gestionatzen dituen Tolosaldeako Mankomunitateari entregatu behar zaizkio, modu egokian, aurreikusitako baldintzen arabera.

23. artikulua. Lurra emandako fruituen erabilera

1. Erabiltzaileek lurra landatuta lortutako fruituak hartu ahal izango dituzte, baina norberak edo familiak kontsumitzeko bakarrik.
2. Debekatuta dago aisiarako baratzeetan hazitako barazkiak saltzea edo merkaturatzea, hau da, merkataritza jarduera juridikoak egitea.
3. Baratzeke etekinak saldu edo merkaturatzen dituen erabiltzaileari Udalak baimena baliogabetuko dio.

24. artikulua. Mantentze-lanetako gastuak

1. Baratzeen erabiltzaileek ordaindu behar dituzte instalazioen mantentze-lan arruntten gastuak. Lan horiek dira, adibidez, instalazioak garbitzea, sarbideak ixteko elementuak berritzea (giltzarrapoak, morroiloak, e.a.), baratzeak bereizteko jarritako sare edo elementuak konpontzea, ureztaketa sistema konpontzea (aberia eguneroko erabileragatik gertatu bada eta konponketa handia ez bada) eta lurra zaintzeko behar diren produktuak erostea. Eguneroko erabileragatik hondatutako tresnak eta instalazioak konpondu edo berritzeko gastu arruntak ere erabiltzaileek ordaindu behar dituzte.



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

2. Aurreko atalean sartu gabeko egitura gastuak Udalaren kontura izango dira, salbu instalazioak kaltetu badira erabiltzailearen baten erruz edo jarrera arduragabeagatik. Alde horretatik, baratzeak kaltetu ditzakeen intzidentziaren bat gertatzen bada, Udala jakinaren gainean jarri behar da, ahal bezain laster.
3. Erabiltzaileek Udalak, arrazoituz eta Zuzenbidearen arabera, baratzeen erabileratik eratorritako gastuak estaltzeko onartutako zergak (tasak, kanonak, e.a.) ordaindu behar dituzte.

25. artikulua. Materialen inbentarioa

1. Udalaren agindupeko langileek aisiarako baratzeak erabiltzeko jarritako ondasunen inbentarioa egin behar dute.
2. Inbentarioa baratzeak entregatu aurretik egin behar da eta zerrendan sartu behar dira entregatutako ondasun eta instalazio mota guztiak (ureztaketa, konposta egiteko ontzia, e.a.).
3. Erabiltzaileek, baratzeak erabiltzeko epea amaitu ondoren, baratzeekin batera entregatutako ondasun guztiak bueltatu edo, hala badagokie, berritu behar dituzte.

26. artikulua. Ingurumen hezkuntza

1. Ikastetxeetako ikasleek aisiarako baratzeetara bisitak egin ditzakete, han zer egiten den jakiteko eta nekazaritza tradizional balioen berri izateko.
2. Horregatik, erabiltzaileek, Udalak Hezkuntza Administrazioarekin edo beste Herri Administrazioaren batekin elkarlanean antolatutako bisitetan, ikasle taldeei sartzen utzi behar diete, baratzeak irekita dauden garaian.
3. Bisitak irauten duen bitartean, gainera, erabiltzaileek lagundu egin behar diete, ahal duten heinean, ikasleekin joan diren irakasle eta lagunei.
4. Halaber, erabiltzaileek lurrarekin eta naturarekin zerikusia duten balioak transmititu ditzakete, baita laborantza metodoen, espezieen eta ikasleei interesatzen zaien nekazaritza tradizional edo ingurumenaren gaineko edozein gairen inguruko ezaupideak ere. Era horretan, gainera, belaunaldi arteko harremanak sustatuko dira.



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

IV. titulua. Erantzukizun erregimena

27. artikulua. Erantzukizun mankomunatua

1. Erabiltzaileak izango dira dagokien partzelan egindako jardueren erantzuleak. Baratzeen esleipendunek, beraz, erantzukizun mankomunatua izango dute.

Esleipendunak, baratzeak erabiltzeko baimena onartutakoan, bere gain hartuko du baratzea hartzeari dagokion erantzukizuna.

2. Lizartzako Udala ez da izango esleipendunek edo beste edozeinek izandako istripuen erantzulea, ezta baratzeak erabiltzerakoan hirugarrenei eragindako kalteena ere.
3. Udalak, ofizioz, partzelen esleipendunen erantzukizunak zehazteko prozedura has dezake, esleipendunek edo hirugarrenen batek instalazioak hondatu baditu Ordenantza honetan ezarritako baldintzak ez betetzeagatik edo zabar joketzeagatik.

28. artikulua. Hirugarrenei eragindako kalteak

1. Erabiltzaileak izango dira, baita ere, aisiarako baratzeak erabili eta ustiatzeko baimena baliatuz hirugarrenei eragindako kalteen erantzule.
2. Horrez gain, erabiltzaileak gainerako baratzezainei eragindako lesioen edo baratzezain horien partzela eta instalazioetan sortutako kalteen erantzule ere izango dira.
3. Baratzean behar den arretaz jardun behar da, gainerako erabiltzaileei kalte, eragozpen edo lesiorik ez eragiteko.

29. artikulua. Kalte eta galeren ordainak

1. Erabiltzaileek, sortutako erantzukizunen arabera, kaltetuari eragindako kalte edo lesioak ordaindu beharko dizkiote; hori, aurreko artikuluetan ezarritakoari jarriki.
2. Erantzukizuna bada lagatako instalazioak kaltetu izana, Udalak izango du kaltea ordaintzea eskatzeko eskubidea, administrazio zuzenbidearen arabera aplikatu daitezkeen arauetara jarraiki.



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

3. Kalteak edo lesioak partikularrei eragiten bazaizkie, hau da, gainerako baratzezainei edo baratzeekin zerikusirik ez duten hirugarrenei, erantzukizuna azken horiek eskatuko dute, Kode Zibileko 1902. artikuluan ezarritakoaren arabera.

30. artikulua. Baratzeak zeuden moduan entregatzea

1. Baratzeak esleipendunari lagatakoan zeuden moduan bueltatu behar dira, lurra funtsean aldatu gabe, salbu lagatzaileak baimendutako ongari organikoekin; hori, Ordenantza honetako 5. artikuluan aipatu zaintza eta mantentze-lanen gaineko printzipioaren arabera.
2. Titularrek, instalazioak hondatzen badituzte eguneroko erabilera normalagatik espero dena baino gehiago, hondatutakoa berritu edo konpondu beharko dute.
3. Erabiltzaileen batek ez badu hondatutakoa konpontzen, Udalak konpon dezake, haren kontura, Administrazioak kasu horietan daukan itzultze ahalmena baliatuz.

V. titulua. Aisiarako baratzeen antolaketa

31. artikulua. Baratzea gestionatuko duten organoak eta langileak

1. Baratzeetako esleipendunek dauzkaten erantzukizunak alde batera utzi gabe, Udalak erabiltzaileen gestioaren segimendua egingo du, IV. tituluaz azaldutako moduan, egiaztatzeko baratzezainen lanak bat datozela Ordenantza honetan eta aplikatu daitezkeen gainerako araudietan ezarritakoarekin.
2. Hala, tokiko organo eskudunak gai diren teknikariak izendatuko ditu, baratzeen segimendua egin dezaten. Langile horiek kontrolatzeko, informazioa biltzeko eta ikuskatzeko ahalmena izango dute, baita esleipendunei jarraibideak emateko ere baratzeen funtzionamenduaren eta lortu nahi diren helburuen gainean.

VI. titulua. Diziiplina erregimena

32. artikulua. Arau orokorrak

1. Baratzeen erabiltzaileek Ordenantza honetan ezarritako guztia bete behar dute eta, Ordenantza honetan aurreikusi gabekoetarako, Toki Erakundeen Ondasunen gaineko arautegian zehaztutakoa.



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

2. Ordenantzako aginduen kontrako jarrerak, arau-hauste gisa tipifikatuta egonez gero, Udalak zigortu egingo ditu.
3. Erabiltzaileek, dolu, erru edo axolagabekeriak edo arauak ez betetze hutsagatik, aisiarako baratzeak dauden jabari publikoko instalazio edo partzeletan kalteak eragiten badituzte, edo baratzeen xedea eta arauak betetzen ez badituzte, zigorra jasoko dute, administrazio bidetik, eta isuna jarriko zaie. Isunaren zenbatekoa eragindako kaltearen hainbestekoaren eta bikoitzaren artekoa izango da; erabiltzaileak, betiere, kaltea konpondu edo legez kanpo hartutako ondasuna lehengoratu dezake, hala badagokio.
4. Isunak eta zenbatekoak irizpide hauen arabera zehaztuko dira:
 - a) Eragindako kaltearen zenbatekoa.
 - b) Hausleak ateratako etekina.
 - c) Intenzionalitatea.
 - d) Urte betean arau bera behin baino gehiagotan haustea, baldin eta arau-haustearen gainean behin betiko erabakia hartu bada.
5. Isunaren zenbatekoa hausleak ateratako etekina baino txikiagoa bada, zigorra ateratako etekinaren zenbatekoraino handituko da; isuna, gehienez, eragindako kaltearen hainbestekoaren eta bikoitzaren artekoa izango da.
6. Ordenantza honetan aurreikusitakoetarako, hauek izango dira arau-hausteak, bai erabiltzaileentzat, bai baratzeekin zerikusirik ez duten hirugarrenentzat:
 - a) Ondasunak hartzea, horretarako gaitzen duen baimenik gabe.
 - b) Tokiko erakundeen ondasunak erabiltzea dagozkien helburu eta arauen kontra.
 - c) Ondasunei kalte materialak eragitea.
7. Erabiltzaileen erantzukizuna izan daiteke, batetik, nagusia edo zuzena, hauslea erabiltzailea bada; eta bestetik, subsidiarioa, hauslea instalazioekin zerikusirik ez duenen bat bada eta kaltea eragin badu erabiltzailearen baten borondatez edo arduragabekeriak, erabiltzaileak instalazioetara sartzea debekatuta duen hirugarrenen bati sartzen utzi diolako.



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

33. artikulua. Arau-haustek

1. Arau-haustek izango dira Ordenantza honetan edo aplika daitezkeen gainerako araudietan ezarritakoaren kontra doazen ekintzak, bai erabiltzaileek, bai kanpokoek egiten dituztenak.
2. Arau-haustek arinak, larriak edo oso larriak izan daitezke, ekintzaren zenbaterainokoaren eta erruduntasunaren arabera, edo instalazioetan sortutako kalteen arabera.
3. Zehazki, eta aurrez esandakoa ahaztu gabe, hauek hartuko dira arau-hauste arintzat:
 - a) Partzelak ez erabiltzea baratzekeko landare espezieak landatzeko; landare horiek esleipendunei emandako baimenean daude zehaztuta.
 - b) Baratzeekin zerikusirik ez dutenei sartzen uztea, salbu senide, laguntzaile, eskola-ume edo baimendutako pertsonen.
 - c) Baratzean animaliak edukitzea.
 - d) Baratzean landareak landatzeko eta lurra lantzeko ez diren trakzio mekanikoko ibilgailuak sartzea.
 - e) Ordenantza honen kontrako gainerako arau-haustek, larriak edo oso larriak ez badira.
4. Jarrera hauek arau-hauste larritzat hartuko dira:
 - a) Lagatako instalazioak larri kaltetzea edo hondatzea, behar bezala ez zaintzeagatik.
 - b) Partzelan, Udalak aurrez baimendu gabe, kalte larriak eragin dituzten obrak edo aldaketak egitea.
 - c) Gainerako baratzezainen jasan behar ez dituzten eragozpenak eta kalte larriak sortzea.
 - d) Baratzea hirugarrenei erabiltzen uztea, Udalaren baimenik gabe.



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

- e) Lurra, lurzorua edo lurpea kaltetzen duten espezie eta landareak landatzea.
 - f) Barbakoak, estalpeak eta baimendu gabeko elementuak jartzea.
 - g) Bazka eta baratzeetako hondakinak erretzea eta aisiarako baratzeen barrutian sua egitea.
 - h) Urte betean bi arau-hauste arin edo gehiago egitea.
5. Arau-hauste oso larriak hauek izango dira:
- a) Gainerako baratzezainei lesioak eragitea, bai erabiltzaileek, bai erabiltzeekin dagoen kanpoko jendeak.
 - b) Lurra larri kutsatzea.
 - c) Gainerako baratzezainek baratzeak normal erabili eta ustiatzea eragozteak.
 - d) Baratzeek normal funtzionatzea eragozteak.
 - e) Lagatako instalazioetan edota partzelan kalte larriren bat sortzea.
 - f) Landatzea edo ereitea debekatuta dauden landare exotiko edo psikotropikoak ekoiztea.
 - g) Aisiarako baratzeetan landatutako produktuak merkaturatzea.
 - h) Nortasuna, adina edo baratzeen erabilera esleitzeko garrantzitsuak diren datuak faltsutzea edo beste norbaiten nortasuna hartzea.
 - i) Urte betean bi arau-hauste larri edo gehiago egitea.
6. Baimenaren titularrak arau-hauste larri edo oso larriren bat egiten badu, baimena kendu eta hurrengo artikulua araberago dagoen zigorra jarriko zaio. Titularrari, gainera, ez zaizkio kalteak ordainduko.
7. Aurrez esandakoa ahaztu gabe, erabiltzailearen batek delitu egiten badu, agintaritzaren eskudunari emango zaio gertakariaren berri, erantzukizun penalak zehazteko.



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

Hala ere, Udalak eginbide penalak bideratuko ditu, kaltetu gisa dagozkionak.

34. artikulua. Zehatzeko prozedura

1. Arau-hausleei zigorrak ezartzeko prozedura zehatzaileak hasi eta bideratu behar dira, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeko IX. tituluaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen zehatzeko ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legean aurreikusitako erregimenaren arabera.
2. Zehatzeko prozedura bideratzea Udaleko Lehendakariak aginduko dio udal funtzionario bati eta erabakia alkateak edo hark esku emandako zinegotziak hartuko du.

35. artikulua. Kalteak konpontzeko premia

Segurtasunagatik edo udal organo eskudunak ebazpen baten bitartez azaldutako arrazoiren bategatik kalteak eta galerak premiaz konpondu behar badira, konponketak berehala egin daitezke, eta gero zenbatekoa kalteak eragin dituenari ordain ditzan eskatu; aurrez, aurreko artikuluetan aipatu zehapen espedientea bideratu edo jurisdikzio arruntera jo behar da.

BIGARRENA. Udal-ordenantza hori jendaurrean jarri eta interesdunei jakinaraztea, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuz eta hogeita hamar egunez Udaleko iragarki-oholean erakutsaraziz, egoki irizten dionak gero Udalbatzak aztertu beharreko erreklamazioak edo iradokizunak aurkez ditzan. Aipatutako epean inongo erreklamazio edo iradokizunik aurkezten ez bada, onartutzat joko da behin betiko, Udalbatzak berriaz erabakia emateko beharrik gabe.

HIRUGARRENA. Ahalmena ematea alkate-lehendakariari gai honi lotutako dokumentu oro izenpetzeko.

8.- MOZIOAK

Ez dago moziorik.

8.- BESTELAKOAK

Ez dago bestelakorik.



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

Eta beste gairik ezean, alkateak amaitutzat eman du bilkura, arratsaldeko zortzi t'erdietan, eta nik, idazkari naizen aldetik, horren fede eman dut.

ALKATEAK

Izpta: Begoña Balerdi Urdampilleta

IDAZKARI-KONTU HARTZAILEAK

Izpta: Ana Jesus Zabala Garmendia